

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

DONOSTIAKO EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA

ENPRESA ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZA GRADUA - EAZ GRADUA

GRADU AMAIERAKO LANA

FINANTZA ETIKOAK: BANKA ETIKOA ETA LABORAL KUTXAREN ARTEKO ALDERAKETA

IKASLEA: Miren Amozarrain Altube

TUTOREA: Eusebio Lasa Altuna

2019/2020 ikasturtea

IRADOKIZUNAK ETA ESKERRAK

Gradu Amaierako Lan hau egiten asko ikasi dut, akademikoki zein pertsonalki eboluzio bat izan dudala sumatu baitut. Arrasateko kooperatibaren historia azertu ondoren harrotasuna sentitu dut; hunkitzekoa da nire aitona horrelako proiektu handi eta garrantzitsu baten parte hartu izana, baita honek dakarren baloreak guri transmititu izana ere. Hasiera batean, nire intentzioa Laboral Kutxan praktikak egiten nituen bitartean Gradu Amaierako Lana prestatzea zen, barneko sistemaz baliatuz datu zehatzagoak lortzeko asmoz. Baina jasandako egoeraren eraginez, Covid-19 pandemia, praktikak suspenditu eta lana beste era batera antolatzea planteatu behar izan nuen. Hortik sortu zait informazioa eskuratzeko zailtasuna. Lan hau Laboral Kutxarentzat edo interesa duen beste edonorentzat baliagarria izatea espero dut, gogoz egindakoa proiektu bat baita.

Ibilbide guzti honetan zehar laguntza handia izan dut, azpimarratzekoa da tutore izan dudana Eusebio Lasak eskaini didan babesa. Etengabeko kontaktuan egon gara eta bere ezagutza eta ikuspuntua baliozkoak izan dira niretzat, horrexegatik eskerrak eman nahi dizkiot. Inguruko familia eta lagun bultzada ere ezinbestekoa izan da niretzat. Eta nola ez, elkarrizketarako denboratxo bat eskaini didaten bi adituei ere eskerrik handienak, Julio Gallastegui eta Beñat Irasuegiri. Hauen esperientziak eman baitiote lanari behar zuen forma.

AURKIBIDEA:

LABURPENA.....	7
1.SARRERA.....	9
1.1 Lana aukeratzeko arrazoiak, nor naiz?.....	9
1.2 Lanaren helburua.....	10
1.3 Metodologia eta lanaren deskribapena.....	10
2.MARKO TEORIKOA.....	11
2.1. FINATZA ETIKOAK.....	11
2.1.1. Definizioak: Finantza, Etika, Etika Profesionala, Finantza Etikoak...11	
2.1.2. Banka Etikoa.....	15
2.1.3. Finantza etikoen historia: sorrera, arrazoiak, bilakaera.....	18
2.1.4. Finantza etikoen gaur egungo egoera.....	21
2.1.5. Finantza etikoen oinarriak.....	29
2.2. LABORAL KUTXA.....	33
2.2.1. Laboral Kutxaren jaiotza eta garapena.....	33
2.2.2. Laboral Kuxaren gaur egungo egoera.....	38
2.2.3. Laboral Kutxaren oinarriak.....	52
2.3. LABORAL KUTXAREN ETA BANKU ETIKOAREN OINARRIEN ALDERAKETA...54	
3.LANDA AZTERKETA.....	59
3.1. LANDA AZTERKETAREN AZALPENA.....	59
3.2. LABORAL KUTXA ETA BANKA ETIKOAREN ARTEKO ALDERAKETA.....	60
3.2.1. Sorrera eta gaur egun.....	60
3.2.2. Alderaketa orokorra.....	61
3.2.3. Kultura mota.....	61
3.2.4. Finantzatutako enpresa motak.....	62
3.2.5. Inbertitutako Jarduera motak, espekulazioak.....	63
3.2.6. Parte Hartzea.....	63
3.2.7. Gardentasuna.....	64
3.2.8. Kultura etikoa.....	64
3.2.9. “Nire diruarekin ez”.....	65
3.2.10. Etorkizuna.....	66

4.AZKEN ONDORIOAK ETA HAUSNARKETAK.....	69
5.BIBLIOGRAFIA.....	75
6.TAULEN AURKIBIDEA.....	81
7.GRAFIKOEN AURKIBIDEA.....	81
8.IRUDIEN AURKIBIDEA.....	81
9.ERANSKINAK.....	83

LABURPENA

Gradu Amaierako Lan honen gaia Finantza Etikoak dira, nahiz eta Banku Etikoetan zentratuko garen, azken finean bi termino hauek eskutik lotuta doaz. Gure helburua Laboral Kutxak finantza etikoetan zenbaterainoko inplikazioa duen aztertzea da eta honen inguruan azterketa sakon bat egitea. Bi banku mota hauek konparatzerako orduan, beraien oinarrietan, printzipioetan, zentratuko gara alderaketak egiteko. Gure kabuz hausnarketa egin ondoren, gai honetan adituak diren bi profesional elkarrizketatuko dira, iritzi kritiko eta errealago bat lortzeko asmoz. Azkenik, informazio-iturri desberdinak izanda gure ondorioak aterako ditugu, ikuspuntu pertsonalago bat eskainiz.

RESUMEN

El tema de este Trabajo Fin de Grado son las Finanzas Éticas, aunque nos centraremos en la Banca Ética, después de todo, estos dos términos van de la mano. Nuestro objetivo es estudiar hasta qué punto Laboral Kutxa está involucrado en las finanzas éticas y llevar a cabo un profundo análisis del mismo. Al comparar estos dos tipos de bancos, nos centraremos en sus conceptos básicos, principios, para hacer comparaciones. Después de reflexionar por nuestra cuenta, dos profesionales expertos en este tema serán entrevistados con el fin de obtener una opinión más crítica y realista. Finalmente, sacaremos nuestras propias conclusiones teniendo en cuenta las diferentes fuentes de información, ofreciendo una perspectiva más personal.

ABSTRACT

The topic of this Final Degree Project are Ethical Finances, although we will focus on Ethical Banking, after all, these two terms go hand in hand. Our objective is to study what extent Laboral Kutxa is involved in ethical finances and to carry out an in-depth analysis of this. When comparing these two types of banks, we will focus on their basic concepts, principles, to make comparisons. After reflecting on our own, two professional experts on this topic will be interviewed in order to obtain a more critical and realistic opinion. Finally, we will draw our own conclusions taking into account the different sources of information, offering a more personal perspective.

1.SARRERA

1.1.Lana aukeratzeko arrazoiak, nor naiz?

Txikitatik egon naiz naturarekin harremanetan, gurasoek erakutsi didate zein garrantzitsua den ama-lurra zaintzea eta errespetatzea. Erakutsi didate zein emankorra eta baliagarria den lurra, eta hari mesede egin behar diogula ematen digun onura guztiengatik. "Momentuz lurra da bizitzeko daukagun toki bakarra, beraz zaindu beharra dugu" esan ohi dit aitak.

Nagusitzen noan heinean, nire ikuspegi propioak eraiki ditut eta orduantxe jabetu naiz naturaren garrantziaz. Ingurumenaren egoera okerrari pare bat buelta eman ondoren, nire familiako ohiturak jarraituz eta nire ekintzen jabe ni neu naizela berretsiz, ni ere ingurumena errespetatzen duten jardueretara batu naiz, hala nola, konposta egin, birziklatu, ahalik eta plastiko gutxien kontsumitu, elikagai ekologikoak erosi... Posible den neurrian ingurumena zaintzea delako gure helburua.

Ingurumenaz gain, esparru soziala azpimarratzea ere garrantzitsua iruditzen zait; giza eskubideak, berdintasuna eta heziketa beste hainbat gaien artean. Pil-pilean dauden gizarteko arazoak dira, eta zuzentzeko ahaleginetan gabiltzan arren, badirudi oraindik ez dela balantza bat aurkitu.

Egungo ingurumenaren eta arlo sozialaren egoerari erreparatuz, soma dezakegu oraindik asko dagoela egiteko. Betidanik barruan izan dudana zalantzetako bat da, mundu hau aldatuko nuke, baina nola, nondik hasi beharko nintzateke? Ba al dut haina indar egoera tamalgarri honi 360 graduko buelta emateko eta gizarteak beste jokaera zintzoago bat hartzeko?

Arrasaten jaio nintzen, Euskal Herriko lehen kooperatiba sortu eta munduko kooperatiben hiriburua kontsideratu daitekeen herri berean. Nahiz eta unibertsitateko ikasketak kanpoan egin, bertan bizitzen jarraitzen dut. Horrez gain, kooperatibismoa zainetan daramadan zerbait dela esatera ausartzen naiz; izan ere, nire aitona zena, Rafael Amozarrain, Arrasate Kooperatibako sortzaile eta zuzendari izateaz gain, ULARCOren (MCCren enbrioia izan zena, Mondragón Corporación Cooperativa) finantza zuzendaria ere izan zen. Kooperatibaren baloreak barru-barruan zituen gizona zen, eta ondo baino hobeto jakin du printzipio horiek bere ondorengoei transmititzen. Orduz geroztik, beste hainbat senide eta lagun Mondragon kooperatibako bazkide izan dira. Gutxi ez balitz, Laboral Kutxa Banka Kooperatiboan graduko praktikak egiteko aukera izan dut. Beraz, Kooperatiben mundua gertu sentitu dut betidanik, hurbiletik ikusi dut zein garrantzitsua den elkartasuna, talde lana eta berdintasuna. Horrela, gizarte baten garapen eta aberastasunerako inguruko enpresek duten garrantziaren lekuko izan naiz.

Errealitate guzti honek gaur naizena izatera bultzatu nau, eta beraz ez da harritzekoa nik ere banka kooperatiben munduagatik interesa izatea. Banku Kooperatiboaren eta Banku Etikoaren arteko hausnarketa egitea erakargarria iruditzen zait, hauen helburuak alderatzeko eta balore komunak ezagutzeko jakin-mina piztu baitzait.

1.2. Lanaren helburua

Nire gaia Finantza Etikoak dira eta lan honekin lortu nahi dudana helburua ondorengo da: Laboral Kutxak, zenbaterainoko inplikazioa duen finantza etikoetan eta guzti honen inguruan azterketa sakon bat egitea. Hausnarketa egin ondoren, Banku Etiko eta Laboral Kutxaren arteko ondorio zehatzagoak ezagutzeko da xedea. Horretarako, lehenengo Finantza Etikoak ulertuko ditugu, barnean dituen ezaugarri nabarmenenak azalduz, ondoren Laboral Kutxa kreditu kooperatiba aztertuko dugu gure arloko ikurrik gailenduz. Bukatzeko, landu ditugun bi esparru hauek batu eta ondorio batera helduko gara, bien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak adieraziz.

Hitz gutxitan esanda, finantza etikoak errentagarritasun ekonomiko, sozial eta ingurumeneko helburu jasangarriak bateragarri egiten dituen entitate mugimendua da. Aldiz, Laboral Kutxa, banku tradizional bat izanik, ze punturaino betetzen ditu finantza etikoen oinarriak? Komeni litzaioke Laboral Kutxari banka etiko batean bihurtzea? Galdera hauei erantzun bat emateko asmoz eratuko dugu lana.

1.3. Metodologia eta lanaren deskribapena

Helburua lortzeko metodologia bikoitza erabiliko dut. Alde batetik, Marko Teorikoan autore desberdinen iritzia eta pentsamenduak azalduko ditut, hauen ideologia eta aportazioak erakutsiz. Beraz, lehenengo zatia teorian oinarrituko da. Finantza Etikoak bi pilare garrantzitsuz osatuta daude: Finantza eta Etika, eta garrantzitsua iruditzen zait hasiera batetik argi gelditzea adigai hauek duten esanahia. Behin bi gai hauek azalduta, gure kontzeptu garrantzitsuena azaltzera pasako gara: Finantza Etikoak. Beraz, gure lanaren ardatza Finantza Etikoak izango dira eta beste guztia honen inguruan mugituko delako. Finantza etikoak hiru arlo desberdinetan banatzen direnez: ekonomikoa, ingurugiroa eta ekonomikoa, interesgarria iruditzen zait arlo bakoitza era indibidualean azaltzea. Behin teoria sakonki azalduta, historiara pasatuko gara. Bertan, besteak beste, Finantza Etikoen sorrerara, nork sortu zituen, ideologoak eta zer bilakaera izan duten urteetan zehar jorratuko ditugu. Ondoren, finantza etikoen gaur egungo egoera azalduko da. Lan honen helburua Finantza Etikoak Banka Kooperatibekin alderatzea denez, Banka Kooperatiboaren sorrera eta bilakaera ere azalduko dira Laboral Kutxan oinarrituz. Izan ere, hau baita interesatzen zaigun Banku Kooperatiboa, beraz, honen jaiotza eta oinarriak aipatuko dira besteak beste.

Bestalde, Landa Azterketa bat prestatuko dugu, ikerketa propioak egiteko. Finantza Etikoen eta Banka Kooperatiben gaia menderatzen duten bi aditu elkarrizketatuko ditugu, horrela banka kooperatiboen barruan finantza etikoen inguruan dagoen ikuspuntua eztabaidatzeko aukera izateko. Elkarrizketa eskatu eta hitzordua finkatu, galdetegia prestatu, elkarrizketa egin eta elkarrizketa grabatu egingo da, horrela gero hitzez hitz ateratzeko adituek adierazitako ideiak eta hauekin batera ondorio nagusiak azalduko ditugu ondoren Marko Teorikoari gehitzeko. Konklusio pertsonalagoak ere aterako ditugu Finantza Etikoen eta Banka Kooperatiboen inguruan.

2. MARKO TEORIKOA

2.1 FINATZA ETIKOA

2.1.1. Definizioak

Finantza Etikoen kontzeptua ezagutu baino lehen komenigarria da berau osatzen duten hitzak banan-banan ezagutzea. Hasiara batean Finantzak eta Etikak beraien artean zerikusirik ez dutela pentsatu arren, badago ekonomiaren esparru bat non eskutik lotuta doazen bi kontzeptu hauek.

Finantza diru-fluxua administratzen eta optimizatzen duen ekonomiaren arlo bati dagokio, hau da, diruaren kudeaketaz arduratzen da (Pérez Porto, J. eta Gardey, A., 2013). Halaber, pertsonen, enpresen edo Estatuaren kapitalaren zirkulazioa aztertzen du, baita hauek ziurgabetasun baldintzetan inbertsio, aurrezki edota gastuei buruz hartu beharreko erabakiak ere. Horretarako, Soyocota-ren web orrian adierazten den bezala (MBA eta Salmerón, A., 2016), finantzak denboran zehar diruaren balioa eta arriskua uztartzen ditu, eragile ekonomikoek dituzten kapital beharrak une, neurri eta modu egokian kudeatzeko. Labur esanda, finantzak baliabide ekonomikoaren administrazioari egiten dio erreferentzia, horiek lortu eta kudeatzea barne.

Sistema finantzarioa, aldiz, bitartekari jardueragatik bereizten da, bere lana aktibo finantzarioak eraldatzean datza. Xede nagusia aurreztaileen baliabideak finantzazio beharra dutenei bezeroei transferitzea da, kontraprestazio baten truke. Orokorrean, bankuak dira finantza zerbitzu hauek ematen dituzten bitartekari finantzario esanguratsuenak. Beraz, pertsona edo erakundeek beraien aurrezkiak bankuetan uzten dituzte, hau da, soberan duten dirua. Aldi berean, bankuek diru edo likidezia falta duten beste bezero batzuei mailegatzen diote aurrezki horiek, beti ere geroago itzultzeko konpromezuarekin, mailegu honengatik interesak jasoz. Orduan, esan genezake bankua dirua ekonomiaren eremu batetik bestera eramaten duen bitartekaria dela.

Bestalde, etika dugu; etika edo filosofia morala giza portaerak aztertzen dituen filosofiaren adarra dela dio Raffinok (2019): zuzena eta okerra, ona eta txarra, morala, bertutea, zorientasuna eta betebeharra hautematen ditu, besteak beste. Etika garaikidea maila ezberdinetan banatzen da: metaetikak kontzeptu etikoen jatorria, natura eta haren esanahia aztertzen ditu, etika normatiboak arauak edo estandarrak bilatzen ditu gizakien portaera arautzeko, eta etika aplikatuak eztabaida etiko zehatzak aztertzen ditu.

Etikaren oinarria gizakiaren ekintza arrazionalak gidatzea da, honek izaera orokorra eta unibertsalak bete dezan, hala nola, ingurukoak errespetatzea, gezurrik ez esatea, intentzio onak izatea, koherentziaz jokatzeko, justua izatea, etab. (EGM, d.g.). Cortinaren (2018) hitzetan, Etika hitza Grezian dator, "êthos" terminotik, izaera esan nahi duena, eta zentzu horretan, etikak pertsonen izaerak arrazoitzen ditu.

Bereizketa garrantzitsu bat egin behar da etika eta moralaren artean, lotura estuko kontzeptuak dira, eta askotan sinonimo gisa erabiltzen diren arren esanahi desberdina dute. Esan bezala, etika, moralitasuna aztertzen duen diziplina akademikoa da, gizakion jarrera onak eta txarrak bereizten ditu, printzipio horiek arrazionalki ikertuz. Beraz, etika ez da ekintza horiek deskribatzera mugatzen, baizik eta horien zergatia definitzen du, horrela gizakien jokabidea bideratzen lagunduko du. Aldiz, ekintza moralak askatasunez eta naturaltasunez burutzen diren giza jarduerak dira, eta moralak ekintza hauek irizpide filosofiko, erlijioso eta kulturaren arabera bereizten ditu (Ética y Moral, 2020). Azkenik, aipatzekoa da etikak bere jatorria Antzinako Grezian duela, baina hala ere, garapen historiko zabala eta askotarikoa izan duela, hala nola, antropologia, biologia, ekonomia, historia, politika, soziologia eta teologiarekin lotzen da etika.

Guri interesatzen zaigun ildoari helduz, etikak ekonomian, edo hobeto esanda lan munduan izan duen eragina azpimarratuko dugu. Enpresen etika edo etika profesionala, arlo profesionalean gauzatzen diren arazo moral edota etiko ezberdinak konpontzeko erabiltzen diren arau eta printzipio etikoak dira (Raffino, 2020).

Cortinak (2018) esan bezala, etika hitzak izaera esan nahi du, eta gizaki batek bere izaera duen bezala, enpresa batek ere bere identitate propioa izan behar du. Enpresaren balore etikoak ezartzeaz eta honek izango dituen nortasuna, izaera eta helburuak aplikatzeaz gizakia arduratzen da. Lanaren etika ezinbestekoa da langile ororentzat: erantzukizuna, koherentzia, izaera, kontzentrazioa, prestakuntza, diskrezioa eta beste hainbat baloreren praktika eskatzen du. Etika profesionalak eta etika pertsonalak talka egin dezakete askotan, desadostasunak sortuz. Beraz, arlo profesionalean enpresaren onuragatik begiratu behar bada ere, balore pertsonalen printzipioak ezin dira ahaztu.

Behin Finantza eta Etika terminoak bakoitza bere aldetik deskribatu ondoren, lanaren ardatz nagusia izango den kontzeptua sakonduko dugu: Finantza Etikoak. Finantza etikoek (Dinerétic, d.g.), errentagarritasun ekonomikoaz gain, gizarte eta ingurumena helburu dituzten ekimenak bateragarri egiten dituzte. Bere xedea eraldaketa sozialean laguntzea da. Finantza etikoak, etika, finantza prozesu barruan sartzean datza. Herritarren aurrezkiak eskuratu eta hauek irizpide etikoak aplikatzen dituzten entitate eta enpresen finantzaketara bideratzen ditu. Finantza etikoen ikuspegitik, etekin ekonomikoak gizartearekin eta ingurumenarekin lotutako prestazioekin estuki lotuta daude, horregatik gizartearentzako balio erantsia duten proiektuetan inbertitzen du soilik, hau da, gizarte, ingurumen, kultura, hezkuntza eta beste hainbat eremu sustatzen dituzten egitasmoetan.

Finantza etikoak finantza egiteko sistema berriak dira, eta finantza tradizionalarekin konparatuz, etekin hirukoitza eskuratzea dute helburu: soziala, ingurumena eta ekonomikoa (economiasolidaria, d.g.).

- **Ekimen sozialak:** Banku etikoetan gordetako diruaren zati bat lankidetzara lanetara, gizarte integratzearako negozio ekimenera, proiektu kultural eta hezitzaileetara, komunitatearen bizitzara eta baloreak sustatzera bideratuta dago. Banku etikoak gizartearen eraldaketa bilatzen du eta ondorego portaerak sustatzea eskatzen du: beste hezkuntza baten beharra, artea eta kultura

guztion eskura izatea, aisialdi arduratsua praktikatzea, osasuna modu integralean ulertzea, giza eskubideak babestea, hazkunde pertsonalerako ekimenak bultzatzea eta ekonomia solidarioa indartzea. Gizartean nabarmentzen ez diren kooperatiba eta ekimenekin lan egiteko konpromisoa hartzen du bere gain, hala nola, beste gaitasun batzuk dituzten pertsonekin, gizartean baztertzeko arriskuan dauden pertsonekin, adinekoekin.

- **Ingurumena:** Banku etikoetan gordetako diruaren zati handi bat nekazaritza ekologikoa, energia berriztagarriak eta ingurumena zaintzeko proiektuetara doa. Hain zuzen ere, klima aldaketaren aurkako borroka eta alternatiba ekologikoak bultzatzen duten proiektuetara. Banku etikoak energia iraunkorreko ereduak babestu, energia berriztagarriak garatu eta bio-eraikuntzak, nekazaritza ekologikoak eta abar sustatzen dituzten proiektuak finantzatzen ditu.
- **Ekonomikoa:** Finantza etikoek, gizarte eta ingurumenaz gain, alderdi ekonomikoa ere baloratzen dute. Izan ere, errentagarritasun ekonomikoa oso garrantzitsua da beste bi eremutako helburuak lortu ahal izateko, baita finantza etikoek beraien jarduerak betetzeko ere. Beraz, ezinbestekoa da finantza etikoek egiten dituzten ekintzetatik etekin bat lortzea. Errentagarritasun ekonomikoa lortu ezean, entitatea itxi egin beharko zen, eta beraz, ezinezkoa litzateke errentagarritasun sozial eta ingurugirokoa lortzea.

Funts Etikoei erreferentzia bat egitea ezinbestekoa da, izan ere, badira etekinak lortzeaz gain mundua aldatzeko helburua duten ekintzaileak edota inbertitzaileak. Horrela dio El País-eko berri honek (Calleja, 2020) “Actualmente y sobre todo la gente más joven quiere invertir en fondos que mejoren el planeta o cuiden del medioambiente. Pero a su vez no quieren dejar de lado la rentabilidad. Esta es una manera de conseguirlo”. Gero eta gehiago dira Banku Etikoak ez izan arren Funts Etikoekin lan egiten duten erakunde finantzario desberdinak.

Funts hauekin finantzatu diren proiektuek eragin positiboa izango dute gizartean zein ingurugiroan, printzipio iraunkor batzuk errespetatzen dituztelako, Ekuatore Printzipioak, alegia. Posible da banku tradizional batek funts arruntak eta funts etikoak izatea, baina funts etikoetan inbertitutako aurrezkiak zenbait baldintza betetzen dituzten enpresei eta proiektuei soilik zuzentzen dira, hau da, Ekuatoreko Printzipioak betetzen dituztenei.

Ekuatore Printzipioak (EP) 2003an ezagutarazitako arriskuen kudeaketa esparruari dagokio, finantza erakundeei zuzentzen dira (The Equator Principles Association, 2020). Bertan finantzatu dituzten proiektuen gizarte eta ingurumen arriskuak zehazten dira, hauek ebaluatu eta kudeatu ditzaten. EPen helburua, batez ere, erakunde finantzario hauei erabaki egokiak hartzen laguntzea da. Printzipioekin bat egiten duten erakundeek beraien barne-eragiketetan ingurumen eta gizarte-politika horiek ezartzeaz gain, haiekin bat ez datozen bezeroak edo proiektuak baztertzeko konpromisoa hartzen dute. Esan beharra dago EPak errespetatzeko konpromisua hartzea borondatezkoa dela, erakundeak askatasunez aukeratu dezake printzipio hauek errespetatuko dituen edo ez.

Gainera, Ekuatore Printzipioek finantza-sektorean eta banku-industrian ingurumen eta gizarte-kudeaketa arduratsurako beste jarduera batzuk garatzen dituzte eta banku kideei ingurumen eta gizarte-arriskuen kudeaketa-sistemak garatzen lagundu die. Gaur egun, web orrian adierazten den bezala (The Equator Principles Association, 2020), 38 herrialdeetako 105 finantza-erakundeek ofizialki onartu dituzte Ekuatore Printzipioak, Espainiaren kasuan, erakunde hauek batu dira:

2.1.1.1.Taula: Ekuatore Printzipioei batutako bankuak

ERAKUNDEA	BATZE-DATA
Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, S.A. (BBVA)	2004/05/18
CaixaBank	2007/03/19
Banco Santander S.A.	2009/04/30
Banco Sabadell	2011/09/29
Instituto de Crédito Oficial (ICO)	2016/10/26
Bankinter	2016/12/12
Bankia	2018/07/18

Iturria: Geuk egina (2020)

Ekuatoreko printzipioak 10 oinarrietan egituratzen dira, eta bezeroak ez badu egiaztatzen bere proiektuak printzipio hauek betetzen dituela, finantza erakundeak ez dio mailegurik emango, (The Equator Principles Association, 2013):

- 1.printzipioa: Berrikuspena eta Sailkapena, proiektuek izan ditzaketan ingurumen eta gizarte arriskuen eta eraginen magnitudeen arabera sailkatuko dira.
- 2.printzipioa: Ingurumen eta Gizarte Ebaluazioa, proiektuaren arrisku garrantzitsuei aurre egiteko ebaluazio-prozesu bat beharko da, inpaktuei aurre egiteko eta kalteak minimizatzeke, arintzeko eta konpentsatzeko.
- 3.printzipioa: Ingurumen eta Gizarte Arau Aplikagarriak, aipatutako ebaluazio-prozesuak herrialdeko lege, araudi eta baimenak bete behar ditu. Ebaluazio-prozesuak arau hauek betetzen dituela erakutsi beharko da.
- 4.printzipioa: Ingurumena eta Gizarte Kudeaketa Sistema eta Ekuatoreko printzipioen ekintza plana, proiektuek Ingurumen eta Gizarte Kudeaketa Sistema (SGAS) bat izan beharko dute.
- 5.printzipioa: Parte Hartzaileen Konpromisoa, proiektuen eragileek parte-hartze eraginkorra frogatu beharko dute etengabe.
- 6.printzipioa: Kexa Mekanismoa, kexen mekanismo bat garatuko da proiektuaren ingurumen eta gizarte jarduerekin lotutako kezkek eta kexak konpontzeko eta errazteko.

7.printzipioa: Berrikuspen Independentea, ebaluazio-dokumentazioaren berrikuspen independentea egingo da, Ekuatoreko Printzipioak betetzen direla egiaztatzeko.

8.printzipioa: Kontratuen Konpromisoak, finantzaketa dokumentazioan jasotako klausulen bidez bezeroak dagoen herrialdeko lege, araudi eta ingurumen eta gizarte baimen guztiak betetzeko konpromisoa hartuko du.

9.printzipioa: Jarraipen eta Berri Emate Independentea, proiektuak Ekuatoreko Printzipioak betetzen dituen ala ez ebaluatzeko, ingurumen eta gizarte arloko aholkulari edo aditu batek egiaztatuko du informazioa.

10.printzipioa: Txostena eta Gardentasuna, bezeroak ziurtatzen du, ingurumenaren eta gizarte eraginaren ebaluazioaren laburpena sarean eskuragarri egongo dela. Erakunde finantzario bakoitzak urtero jaulki beharko du EPen txosten bat. Gainera EP hauek negozioaren gardentasuna sustatzen duela esango da.

EP 2003an sortu bazen ere, gaur egun 2013an sortutako hirugarren bertsioa dago indarrean, EPIII izeneko. Betidaniko oinarriez gain, beste batzuk gehitu dira arlo konkretu batzuk sakonduz, giza eskubideak adibidez. Eta haratago joan gabe, 2020ko ekainean laugarren bertsioa argitaratuko dela diote.

2.1.2.Banku Etikoa

Finantza Etikoak barnean daraman erakunde nagusia Banka Etikoa da, erabat lotuta daude bi kontzeptu hauek, esan daiteke Finantza Etikoak ekintzak direla eta Banka Etikoa dela ekintza horiek aurrera eramaten dituenak. Banku etikoa bere eguneroko jardueran ekonomia solidarioaren printzipioak aplikatzen dituen finantza-entitate gisa definitzen da (IDEAS, 2019). Banku etiko batek, batez ere, gardentasuna eta errentagarritasun soziala eskaini behar du, printzipio hauek baitira banku tradizionalatik desberdintzen dutenak.

Alde batetik gardentasuna, edozein gordetzailerak uneoro jakin ahal izango du bere dirua zertan inbertitu den, hau da, bere dirua balore eta printzipio etikoak aplikatuz erabili dela egiaztatu dezake. Banka tradizionalarekin alderatzen badugu, banku tradizional baten inbertitzen duen bezeroak ez daki bere dirua zein proiektuetara bideratzen den. Aldiz, Banku Etikoko bezeroak argi eta garbi daki bere diruarekin proiektu iraunkorrak soilik finantzatzeko direla, eta horren inguruan informazio guztia izango du. Horregatik esaten da Banku Etikoen oinarrietako bat gardentasuna dela, leialki adierazten dutelako bezeroen diruaren mugimendua.

Bestalde, errentagarritasun soziala azpimarratu behar da, izan ere, bankuak proiektu bat finantzatzeko orduan, bere balio soziala eta gizarte eraldatzeko eta hobetzeko ahalmena errentagarritasun ekonomikoaren gaineratik egon arren, ezinbestekoa da Banku Etikoa ekonomikoki bideragarria izatea, denboran zehar iraunkorra izan dadin. "Banku etiko batek onura ekonomikoak soilik kontuan hartuko balitu, banku hutsa izango litzateke, eta ingurumenean eta gizarte onuretan soilik zentratuko balitz, banku izateari utziko lioke"(FETS, d.g.).

Beraz, Banku Etikoek beren bezero eta akziodunen diruarekin mundua leku hobe batean bihurtzen duten proiektuak soilik finantzatzeko dituzte eta horrekin batera etekin ekonomikoak jasotzen dituzte, finantza sistema tradizionala bezainbesteko etekinak lortu ditzakete (DobleImpacto, 2018). Pertsonen eta planetaren bizi kalitatea hobetzeko asmoz ekonomiaren hiru sektore garrantzitsutan inbertitzen dute banku etikoek: hezkuntza eta kultura, garapen soziala eta ingurumena. Eraginkortasunaren eta iraunkortasunaren aldeko proiektuetan inbertitzeko helburuarekin, Banku Etikoek finantzatzeko gaiak askotarikoak izan daitezke: giza eskubideak, nazioarteko lankidetzak, erantzukizun korporatiboa, gizarte erakundeak, ingurumenaren gaineko eragina, animalien babesa, gizarte eta hezkuntza proiektuak, energia berriztagarriak, nekazaritza organikoa, ekoizpen iraunkorra, etxebizitza soziala, energia aurrezteak, eraikuntza iraunkorra, hezkuntza doakoa eta alternatiboa, kultura, adinekoentzako eta elbarrientzako laguntza-proiektuak, etab.

Banku Etikoen filosofia arautzen duten hainbat balore eta helburu unibertsal daude (RSC y Economistas Sin Fronteras, 2006): hala nola, etika, gardentasuna, elkartasuna eta parte hartzea. Balore hauek Banku Etiko guztiek bete behar dituzte. Esan beharra dago herrialde bakoitzak bere kultura, filosofia eta baloreak dituela, eta beraz banku bakoitzak bere politika etikoa garatuko duela, eta horrela herrialde batetik bestera Banku Etikoek desberdintasun txikiak izan ditzakete, baina beti printzipio nagusiak eta hartutako konpromisua errespetatuz.

Dirua elkartasun tresna gisa ulertzen dute eta gizakia erabaki ekonomiko eta finantzarioen erdigunean kokatzen da. Bere helburuak finantzaketa erraztea da gizarte, ingurumen eta kultura arloetan balio erantsia sortzen duten jarduerak ekonomikoetarako. Hau da, beren helburu sozialak beti errespetatzen dituzten bitartean, errendimendu ekonomiko onena lortzea bilatzen dute.

Azkenik, Banku Etikoekin bukatzeko, Sasiaren(2018) arabera Banku etikoak kreditu edo laguntza ekonomiko bat ematerakoan etikaren inguruko irizpideak jarraitzen dituzten bankuak dira. Finantza etikoak proiektu horiek gizarte eta ingurumenaren arloan izan ditzaketen eraginaz kezka duten erakunde eta pertsonak biltzen ditu. Eta proiektuak aukeratzeko erabiltzen dituzten irizpide berdinez baliatzen dira eragiketa horiek sustatzen dituen erakundeak garatzeko, hau da, banku etikoak eraikitzeko.

Bestalde, Sasiarentzat (2018) gardentasuna puntu garrantzitsua da, bezero, organizazio edota banku etikoekin zerikusia duten pertsonen beraien diruaren erabileraren helmuga ikusteko aukera izan behar dute. Honek konfiantza eskaintzea ahalbidetzen du. Gainera banku etikoko bezeroek itzuliko dieten interesari garrantzia eman beharrean, beraien diruarekin finantzatzeko diren enpresa horien jarduerak gizartean eragin positiboa izateaz arduratzen dira.

Kredituak finantzatzeko lehenik eta behin analisi bikoitza egiten da “double-check” deitzen zaiona, jarraitzen du Sasiak (2018), baina finantzazio eskaeren gizarte eta ingurumeneko inpaktu baloratzeaz gain inpaktu ekonomiko-finantzarioa ere sakonki baloratzen da. Aukeratutako proiektuen arrisku ekonomikoa ebaluatu behar da. Eta nahiz eta beste edozein erakundeek ere hala egiten duten, badirudi banku etikoek seriotasun gehiagorekin analizatzen dutela. Izan ere, balorazio zabal honi esker banku etikoek merkatuan dauden beste bankuek baino berankortasun maila baxuagoa dute, proiektu espekulatiboetan ez inbertitzearen eraginez, alegia.

Sasiak (Vilnitsky, M., 2017) dio "No hacemos inversiones especulativas ni trabajamos con paraísos fiscales. Tenemos unos índices de morosidad que son significativamente inferiores a los de la banca tradicional". Horrez gain, erakundearen barruan inpaktu soziala eta ingurugirokoa ebaluatzen duen departamentu espezifikoko bat dagoela konfirmatzen du Sasiak (2018). Departamentu honek izugarriko garrantzia du entitate barruan; errotik egindako analisi baten ostean proiektu batek inpaktu negatiboa ekarriko duela baieztatzen badu, ez da proiektu hori finantzatuko, nahiz eta errentagarritasun altuko proiektua izan. Kredituak soilik ekonomia erreala errespetatzen duten proiektuei luzatuko zaie. Deustuko Unibertsitateko elkarrizketari jarraituz Sasiak (2018) Europako Banku Etikoen Federazioak (FEBEA, Federación Europea de las Bancas Éticas y Alternativas) 2018an 28 entitate etiko biltzen zituela adierazi zuen, eta guztira milioi erdi bezero baino gehiago. Aipatu behar da, banku etikoek, beste edozein bankuk bezala, bezeroari behar dituen baliabideak eskaintzen diola.

Horrez gain, Sasiak (2018) datu zehatzago batzuk ematen ditu: Fiare Banca Ética-n ordainsari baxuenen eta altuenen arteko ratioa 1-6koa da, merkatuko talde transnazional handien batz besteko ratioa 1-200koa edo handiagoa izan daitekeen bitartean. Gainera, hazkunde horizontala praktikatzen da Fiare Banca Ética-n, baita beste banku etikoetan ere, gizaki eta langileen baldintzak betez. Sasiak(2018) argi du erakunde etiko bat sortzerako orduan gizarteko eskaerei begiratu behar zaiela. Ez du ezertarako balio munduko proiektu berritzaileena eta ederrena garatzea, jendeak ez badu hori eskatzen eta baloratzen. Beraz, eskariari erreparatu behar zaio eta hau oinarri bezala izanik, gero gehikuntza bat egitea izango litzateke egokiena banku alternatiboaren ideia hau plazaratzeko.

Orokorrean, Sasiaren (2018) ikuspegia positiboa da Banku Etikoei dagokienez Espainian bai European, oztopo garrantzitsuenak legegileak dira, ez baitute banku etikoen izaera ulertzen: "El legislador no comprende la propia naturaleza de nuestras entidades". Espainiari entitate etikoak bultzatzeko legea ezartzea falta zaio. Banku etikoak, normalean entitate txikiak dira, talde transnazional handiekin alderatuta. Finantza-erakunde desberdinen araudi asko daude Espainian, baina badirudi banku etikoei zuzendutako araudia sortzeak izugarriko presioa suposatzen duela. Banku etikoak arlo legegilearen parte izan nahi du, aitortuak izatea eta araudietan islatzea.

Bestalde, finantza etikoen mundua alternatiba sendo eta egonkorra bezala deskribatu zuen de la Cruz-ek (Vinyas, J., 2017), Banca Popolare Etica-ko Etika Batzordeko presidentek, 2017an "Ara Balears"-ek egin zion elkarrizketa batean. Izan ere, urte berean, ekonomia solidarioak Espainiako BPGaren %10a osatzen zuela eta ordurarte 2,2 milioi pertsona enplegatu zituela berretsi zuen de la Cruz-ek (Vinyas, J., 2017). Jendea erdigunean jartzeko apustuak 190.000 kontratu baino gehiago sortu ditu azken urteotan, horien %80a mugagabea izanik. Oso esparru indartsuaz ari garela konfirmatzen du de la Cruzek (Vinyas, J., 2017). Administrazio publikoek gero eta lotura gehiago daukate erakunde etikoekin. Dagoeneko, zenbait udalerrik egin dute apustu banku etikoengatik: Fiare Banca Ética-k Donosti, Madril edota Bartzelonako udalerriekin jarduten du, besteak beste. Gero eta administrazio gehiago daude banku alternatiboekin lan egiteko interesa erakusten dutenak.

2.1.3. Finantza etikoen historia: sorrera, arrazoiak, bilakaera

Edozein gai ondo ezagutzeko, sustraietara joan behar da, jatorrira. Historiak asko esaten du gaur egun banka etikoa denari buruz. Jakin dakigu ekonomia eta etika ez direla betidanik eskutik lotuta joan, eta horrek gizakiaren erreakzioa sortu du, gertaera honi esker gizakia berpiztu egin da eta bere diruaren erabileraren jabe egingo da.

Finantza etikoen jatorria banku tradizionalen mesfidantzarekin lotzen da (Melé, 2012). XIX. mendean Estatu Batuetan, erlijio-komunitate batzuek dirua beren baloreekin bat zetozen tokian jartzea erabaki zuten, eta horregatik esklabutzarekin eta alkoholarekin lotutako proiektuetan inbertitzeari utzi zioten. Banku etikoa sustatzeko beste mugarri berri bat sortu zen herrialde berean 1960ko hamarkadan. Vietnameko gerraren (1955-1975) aurka manifestatzen ari ziren hiritarrak, ohartu ziren berauek zirela gerra hori bultzatzen ari zirenak inkontzienteki, bankuek beraien dirua erabiltzen baitzuten gerra finantzatzeko. Konfliktu honek galdera garrantzitsu bat planteatu zuen, zertara zuzentzen da nire dirua? Ze etika erabiliz uzten du bankuak nire dirua?

Vietnameko gerrak Gobernu Kanpoko Erakunde (GKE, ONG gaztekeraz) bat eratzeko hausnarketara bultzatu zuen, kalean manifestatzen ari ziren fundazioak, elizak eta herritarrak nahi gabe kontrako injustizia finantzatzen ari zirela ohartu baitziren. Testuinguru horretan, Pax Munduko Funtsa 1971n jaio zen, lehenengo funts etikoa kontsideratu zena, armagintzarekin lotutako enpresak baztertzen zituen, modu batera edo bestera diruak gizartea aldatzeko ahalmen positiboa izatea zuen helburu. Mugimendu honek jende asko kontzientziatu zuen eta 70. hamarkadaz geroztik, ideia hau azkar zabaldu zen mundu osoan zehar. Europa mailan ere izugarriko arrakasta izan zuen, eta Banku Etiko gisa jarduten ez bazuten ere, filosofia bera partekatzen zuten erakundeak geroz eta gehiago ziren. Erakunde hauek eskaintzen zituzten finantza etikoak eta iraunkorrak ondorengoak ziren: bonu berdeak, eragin sozialeko bonuak, IRS (Inbertsio Sozialki Arduratsua) eta Funts Berdeak, besteak beste.

Hedapen honen adibide Triodos Bank da, gaur egungo banka etikoa denaren lehenengo pausuak 1968an eman ziren Herbehereetan. Lau profesional batu ziren, finantza sistemen ikuspuntutik dirua kudeatzeko modu alternatibo, kontzienteago eta iraunkorrago bat aurkitzera bideratutako ikerketa batean: ekonomialari bat, zerga zuzenbideko irakaslea bat, negozio aholkularia bat eta bankari bat. Eta horrela sortu zen Triodos Fundazioa (1971), ekimen berritzaileetara bideratutako gizarte, kultura eta ingurumen arloetara donazioak bideratu zituen.

Urte batzuk igaro ondoren Triodos Fundazioa gaur egungo Triodos Bank-en (1980) bilakatu zen, banku etiko gisa, energia berriztagarrietan inbertitu zuen lehen bankuetako bat izan zen (RSC y Economistas Sin Fronteras, 2006). Aldi berean, Herbehereetan Oikocredit sortu zen 1975ean. Alemania ez zen atzean gelditu, GLS Bank (Gemeinschaftsbank, 1974) sortu zen, onura sozialak eta ingurugirokoak zituzten proiektu iraunkorrei soilik ematen zien kredituak. Jarraian beste herrialde batzuk ere ateak ireki zioten banka alternatibo honi; Danimarkan Merkur Bank (1982), Frantzia Credit Cooperatif (1983) eta La Nef (1988), Maltan APS Bank (1990), Suitzan ABS (Alternative Bank Schweiz, 1990ean) eta Espainian Fiare (1999) eta Caixa Pollença (1999), beste hainbaten artean.


Beraz, "Las finanzas éticas en Europa" dokumentuari jarraituz (RSC y Economistas Sin Fronteras, 2006), Europako panoramaren kasuan, Alemania eta Herbehereak herrialdeen garapena nabaria izan zela dio, batez ere ingurumenaren aldeko proiektuen inbertsioak bultzatzera zuzentzen zirelako. Europako beste zenbait herrialdek, hala nola Portugal eta Espainiak, oraindik bide luzea egin beharko zuten finantza etikoak normalizatzeko eta sofistikazio maila horretara iristeko, ez baitzegoen arlo hau erregulatzen zuen araudi finkorik. Gainera Inbertsio Sozialki Arduratsuaren (ISR, Inversión Socialmente Responsable, gazteleraz) garapena moteldu egin zen Espainian; errentagarritasuna ez ezik, gizartean edo ingurumenean duen eragina kontutan hartzen duen inbertsio mota honen irismena mugatua baitzen Iberiar penintsulan.

Gainera, 2000. urtearen bukaeran Herbehereetan sei "Green Intermediaries" zeudela adierazten du dokumentu berak. "Green Intermediaries" *Proiektu Berdeetan* inbertsioak eta maileguak egiten dituen finantza bitartekariak dira, hauek gobernua ezarritako ingurumen irizpideak betetzen dituzten proiektuak dira. Erakunde horietako aktibo gehienak proiektu "berdeetara" bideratuta daude. Inbertitutako diruak abantaila fiskalak ditu, proiektuak merkatuko tasa baino interes txikiagoarekin zergapetzen direlako, eta horregatik dibidenduak errentaren gaineko zergetatik kanpo geratzen dira. Pentsamendu positibo hauek mantentzen zituzten proiektuek sendotasuna hartzen joan ziren poliki-poliki, European gehien zabaldu zen banku etikoa Triodos Bank izan zen; Belgikan, Erresuma Batuan, Alemanian eta Espainian (2004ean) filialak sortuz.

Bestalde, Italian ISR funtsen garapena hasi zen banka tradizionalaren eskutik (RSC y Economistas Sin Fronteras, 2006). Esan beharra dago Italia berpiztu egin zela, Italiako ISR funtsek lortutako ondare bolumena European nabarmendua izan baitzen, eta beraz, Mediterraneoko herrialdeen artean Finantza Etikoen buru bilakatu zela. 1995. urtean "cooperativa verso la banca etica" izeneko lan bat jarri zen martxan, zein 1999an Banca Popolare Ética bilakatu zen. Banku kooperatiboa izanik, bazkide guztien partaidetza sustatzen zuen, bankua berauena zela sentitzeko. Ondoren, Fiare Banka Etikoa jaio zen, finantza etikoetan oinarritutako bi proiekturen batasunetik: alde batetik Banca Popolare Etica eta bestetik, 2005ean Espainian jarduten zuen FIARE (Fundación Inversión y Ahorro Responsable). Beraz, Fiare Banka Etikoa hirugarren sektoreko proiektuen finantzaketan, ekonomia soziala eta solidarioan, kultura sustatzean, gardentasunean, parte-hartzean eta demokrazia printzipioetan oinarritzen zen Espainian (Fiare Banca Ética, d.g.A). Bere kredituak gizarte ekonomiara, bidezko merkataritzara, nazioarteko lankidetzara, ingurumenean eta gizarte zibilera bideratutako proiektuetarako eskaintzen zuten.

2.1.3.1.Taula: Erakunde etikoen sorrera historian zehar

Zutabe hauetan Finantza Etikoez Europan izan duten historia laburbiltzen da.



Iturria: Cavallito et al. (2018)

2.1.3.1.Grafikoa: Europako hamar banku etiko eta iraunkor nagusiak 2016an

Honelakoa zen 2016. urtean Europako hamar banku etiko eta iraunkor handien aktiboen bolumena.




GRÁFICO 5
Los diez mayores bancos éticos y sostenibles europeos por volumen de activos

Fuente: Balance 2016 de los bancos.

Iturria: Cavallito et al. (2018)

Gaur egun, Europa mailan herrialde askok dute banka etiko propioak, baita Atlantikotik bestalde dauden herrialdeek ere, batez ere Amerika Latinoan (Latinoamerikan). Gure kasuan Espainia da ardatza, horregatik aztertuko ditugu batez ere herrialde honekin lotura duten banka etikoak.

Azkenik, esan beharra dago banku etiko guztiek helburu berdinak dituzten arren, banku etikoaren arauak herrialde bakoitzaren desberdintasunen arabera erregulatu direla, beti ere xede orokorra errespetatuz. Guzti honetatik ondoriozta dezakegu Finantza edota Banku Etikoak sortu baino askoz ere lehenagotik datorrela gaur egun bertan plazaratzen den ideologia, hau da, ikuspegi soziala eta gizarte positiboago bat eratzeko desira.

“Kontzientzia garatzen denean, banku etikoa hazten da” dio Joan Antoni Melé-k azken lerroetan, (Melé, 2012). Esan daiteke banku etikoaren sustraiak sakonak direla, eta sensibilizazioa hazi zen momentuan banku etikoa ere hazi egin zela. Litekeena da Vietnameko gerrari edota esklabutzaren garai gogor horiei esker gaur egun gauzak argiago ikustea. Gero eta jende gehiagok erabakitzen du beren diruaren erabileraz, baina ez soilik erosterako orduan, baizik eta aurrezteko momentuan ere bai.


2.1.4. Finantza etikoen gaur egungo egoera

2.1.4.1. Grafikoa: Espainiako banku handien ranking-a, aktiboen arabera 2018an



Iturria: Martínez, M. eta Galera, C. (2019)

2.1.4.2. Grafikoa: Espainiako bankuen eboluzioa



Iturria: Moreno (2019)

Ikusi dezakegunez, gaur egun Espainiako merkatu kuotan indar gehien duten bankuak banku tradizionalak dira: Santander, BBVA, CaixaBank, Bankia eta Sabadell. Baina hemendik bestalde, badago egoera hau aldatu nahi duen ideologia, zehatzago esanda banka etikoak bultzatu nahi dituenak. Horregatik aipatu behar dira Espainian lanean ari diren erakunde finantzario etikoak: Triodos Bank, Fiare Banca Ética, Coop57 eta Oikocredit, besteak beste.

2.1.4.1. Taula: Espainiako Banku Etiko ezagunen identitatea

	Entidades Bancarias reguladas	Entidades financieras No Bancarias
Entidades de base cooperativa		
Sociedad Anónima		

Iturria: Banca Ética (2016)

Egun, finantza sistema etikoaren barruan hainbat ekimen aurki ditzakegu Espainian, aurrezki talde komunitarioetatik hasita eta finantza zerbitzuetako kooperatibetaraino, esaterako, Coop57 eta Oikocredit, baita finantza sistema nazional zein nazioartekoekin araututa dauden banku etikoak, Fiare Banca Ética eta Triodos Bank-ren kasua adibidez (Banca Ética, 2016).

Badaude ere finantza etiko eta alternatibo batzuk, bertako aurrezki esperientziak edota ekimen sozialak dituztenak. Adibide batzuk Autofinantzatutako Komunitateak (CAF, Comunidades Autofinanciadas), funts sozialak edo finantzaketa kolektiboko plataformak dira. Aseguruen sektorean, halaber, badago aseguru etiko eta solidarioak direla ziurtatzen duen zigilua, Etika eta Elkartasunean oinarritutako Aseguruak (Ethical and Solidarity-based Insurance, EthSI).

Gaur egun Espainian, banka etikoaren ideologia bultzatzen duten hainbat entitate ditugula bistakoa da, mota honetako erakundeak pisu handiagoa izaten hasiak dira, nahiz eta oraindik bide luzea duten aurretik. Baina ba al dakigu benetan zer eskaintzen diguten, zeintzuk diren beraien helburu eta printzipioak? Banan-banan aztertuko ditugu, horretarako “El Bien Social” web orriari jarraituko diogu, estruktura bikaina baitu (Bargalló, 2018). Izan ere, etorkizuneko Espainian indar handia eskuratzeko aukera asko dute erakunde hauek, beraz ondo ezagutzea komeni da.

Triodos Bank: Espainian, banku etikoa 2004an azaltzen da, Triodos Bank-ek Bartzelonan zabaldu zuen lehen sukurtsalarekin batera, Triodos España izenarekin. Bertan ageri denez, Triodos Bank 1980an sortu zen Herbehereetan, Triodos Fundazioaren bederatzi urteko lanaren ondorioz. Orduz geroztik indar handia izan du Europa mailan, baita bertatik at ere. Espainian gehien nabarmentzen den banku etikoa dela baieztatu dezakegu, beste hainbaten artean. Gainera, Triodos Bank Alianza Global para una Banca con Valores-en (ingelesez GABV, Global Alliance for Banking on Values) partaide da, GABV banku iraunkor independenteen nazioarteko sarea da, eta finantzak erabiltzen dituzte pertsonen eta desgaitutako komunitateen eta ingurumenaren garapen iraunkorrean laguntzeko. Talde honen barruan egoteak erakundea mundu osoan hedatzea suposatzen du, eta hau da Triodos-en plana (Triodos Bank, d.g.).

Gaur egun, Triodos Bank-ek Herbehereetan, Belgikan, Erresuma Batuan, Espainian eta Alemanian egiten du lan, banku zentrala Herbehereetan izanda. Bere jarduera beste hainbat herrialdeetan garatzen ari da, Europako, Latinoamerikako, Asiako eta Afrikako puntu estrategikoetan, inbertsio funtsen eta mikrokredituen bidez.

Gizarte, ingurumen eta kultur arloetan balio erantsia duten enpresak, erakundeak eta proiektuak finantzatzen ditu, negozio arduratsuak eta berritzaileak sustatu eta bultzatu nahi dituzten pertsonen aurrezki eta inbertsioekin egiten du lan. Gizarte ekonomiaren eta garapenerako lankidetzaren alde egiten du. Banku etikoen sorreran bultzada ikusi da 1980ko hamarkadaren hasieratik, eta hamarkada horretan bost banku etiko sortu ziren, 1980an Herbehereetan sortutako Triodos Bank barne.

Fiare: Lehenago esan bezala, eta Fiare Banca Ética-k (d.g.A) bere web orrian azpimarratzen duen bezala Fiare Banca Ética finantza etikoetan oinarritzen ziren Banca Popolare Etica eta Fiare elkartu zirenean sortu zen: Banca Popolare Etica, 1999tik lanean zebilen banketxe kooperatibo italiar bat zen, Fiare-k, aldiz, 2005etik ekonomia soziala bultzatzen zuten eragileentzako (GKEak, elkarteak, auzo-plataformak ...) laguntza gisa funtzionatzen zuen Espainian, nahiz eta Italiako legediaren menpe egon eta funtzionamendu mugak izan. Beraz, 2014ko urrian Fiare Banca Ética behin betiko finantza erakundea bihurtu zen Espainian eta finantza etikoen jarduerari hasiera eman zion. Orduz geroztik bere helburua eraldaketa sozialaren zerbitzurako tresna izatea da, finantza sistema arlotik. Ekonomia soziala eta solidarioa bultzatu nahi du, oinarri bezala dituen kultura, gardentasuna, partaidetza eta demokrazia sustatuz.

Fiare Banca Ética-k ez die dirurik prestatuko hau itzultzea bermatzen ez dien proiektuei, nahiz eta proiektua iraunkorra izan eta eragin positiboak eduki gizartean eta naturan. Mailegua bueltatzeko zailtasunak izanez gero egitasmoa ukatua izango da, izan ere, banku etiko bezala etorkizun bat izateko errentagarritasun ekonomikoa ezinbestekoa baita.

Fiare Banca Ética European erreferente den banku kooperatiboa da, Italia eta Espainia artean 37.000 kide baino gehiago dituen, 5 eremu geografikotan antolatuta, parte-hartze organo desberdinak eta egitura dinamikoa eta konplexua ditu. Fiare Banca Ética-k Espainian zabaldu zuen lehen sukurtsala Bilbon izan zen 2014an, baina oso denbora gutxian Madrilera eta Bartzelonara ere zabaldu zen erakundea, baita Espainia osoan zehar ere. Aipatzekoa da azken urteotan, udal batzuk Fiare Banca Ética-ko kide bihurtu direla, eta gero eta gehiago dira banku etikoetara transferitzeko interesa duten administrazioak (Moreno, 2015).

Nahiz eta hasiera batean ez zituen oso garatuta partikularrei zuzendutako zerbitzuak, pixkanaka hauentzako oinarritzko zerbitzuak gehitzen hasi ziren eta azkenean, partikularrentzat oinarritzko zorroa eskaintzea lortu zuen osotasunean; eta gaur egun, online banka (Internet bidezkoa), aurrezki eta ordainketa agiriak (12 eta 60 hilabete artean), diru eskaera, zordunketa-txartelak, eta beste edozein erakunderen bezeroek dituzten berme guztiak eskaintzen ditu. Bere gordailuak Gordailuak Bermatzeko Funtzak (FGD, Fondo de Garantía de Depósito) estaltzen ditu.

Kredituak ematerako orduan, Fiare-k proiektuaren elementu ekonomikoak (azterketa teknikoa) baita ez-ekonomikoak (proiektuaren sentsibilitate sozial, ingurumen eta etikoaren ebaluazioa) ebaluatzen ditu. Horrela, erakundeak konpromisoa hartzen du armak, animalia hazkuntza intentsiboa edo energia ez berriztagarrien ekoizpenarekin lotura duten proiektuak ez finantzatzeko. Fiare Banca Ética-ren kasuan gardentasunaren oinarria nabarmentzekoa da, izan ere, erakundeak bere web orrian zehatz-mehatz adierazten du zein proiektu finantzatzeko dituen eta zeintzuk baztertuko dituen (Fiare Banca Ética, d.g.B).

Finantzatuko dituen sektore desberdinak hauek dira:

- Gizarte ongizate sistema: zerbitzu soziosanitarioak, etxebizitza sozialak.
- Energia berriztagarriak eta eraginkorrak: eraikinen isolamendua, eguzki energia termikoa, eguzki fotovoltaiakoa, eolikoa eta hidroelektrikoa.
- Ingurumena: hondakinen kudeaketa, lehengaien birziklapena, eko-bateragarriak diren ekoizpenak.
- Tokiko nekazaritza: produktu organikoak, marketin kanal laburrak eta ekologikoak.
- Nazioarteko lankidetzak: Kanpo Arazoetako eta Lankidetzak Ministerioak aitortutako garapenerako lankidetzak.
- Animazio soziokulturala: hezkuntza, kultura, kirola, gazteentzako guneak.
- Bidezko merkataritza.

Finantzatu litezkeen sektoreen inguruko interpretazio posibleak eztabaidatu behar dira Etika Batzordean.

Finantzatuko ez diren jarduerak:

- Gizakiaren garapena oztopatzen dituzten jarduerak.
- Arnak ekoitzi eta merkaturatzen dituztenak.
- Ingurumenean eragin negatiboa dituzten jarduerak.
- Haurren lan esplotazioa, giza eskubideak urratzen dituztenak.
- Ziurtagiri organikoko arauak ezarritako irizpideak errespetatzen ez dituztenak, animalien hazkuntza intentsiboa, esaterako.
- Giza eskubideak errespetatzen ez dituzten edota ingurumena suntsitzeko erantzukizun larria duten erregimenak.
- Animaliekin frogak egiten dituzten ikerketa zientifikoak.
- Sexuaren merkantilizazioa.
- Zorizko jokoak.

Coop57: ekonomia sozialera sustatzen duten proiektuetarako kredituak eskaintzeko helburuarekin sortutako zerbitzu kooperatiba da, 1987an Katalunian jaio zen eta gero Aragoi (2005), Madril (2006), Andaluzia (2008), Galiziara (2009) zabaldu zen, beranduago Asturias eta Euskal Herrira. Bere eginkizun nagusia, kooperatibismoa, elkartasuna eta printzipio etikoetan oinarritutako iraunkortasuna bultzatzea da. Entitate honen Estatutuak 2004an onartu ziren eta 2007an aldaketa batzuk izan zituen. Puntu kritiko bat du; bere baliabideen %15a ohiko banku entitateetan mantendu behar duela. Coop57 Gizarte Elkartasun Ekonomiako entitateei laguntzen dien finantza zerbitzu etiko eta solidarioen kooperatiba autogestionatua da gaur egun (Coop57, d.g.).

Oikocredit: Oikocredit 1975ean Herbehereetan sortutako nazioarteko finantza eta kooperatiba erakundea da, garapen iraunkorra sustatzen du, garapen bidean dauden herrialdeetan proiektuak finantzatzeko konpromisoa izanik. Egoera honetan dauden herrialdeetako mikrofinantza erakundeei, kooperatibei, bidezko merkataritzako erakundeei eta ETE-iei maileguak, kapitala eta gaitasuna garatzeko laguntza ematen die. Bere lema "Pertsonetan inbertitu" da (Oikocredit, d.g.). Gainera, finantza errentagarritasun apalak lortzeaz gain, Oikocredit-eko inbertitzaileek ziurtatzen dute beren dirua bizi baldintzak hobetzeko, bidezko merkataritza sustatzeko eta gure planetaren baliabide naturalak errespetatzeko erabilia izango dela.

Oikocredit-ek 781 bazkide erakunde ditu 70 herrialdetan. Espainian, Oikocredit bulegoak Bartzelonan, Sevillan eta Bilboko Laguntza Elkartean kokatzen dira, baita Madrilen ere. Espainiako Estatuan, Oikocredit Nazioarteko Kooperatiba Laguntzako hiru elkarteek osatzen dute: Oikocredit Catalunya, Oikocredit Euskadi eta Oikocredit Sevilla. Elkarte horien helburu nagusia Oikocredit International-en inbertitzeko gure herrialdean funtsak biltzea da.

Colonya, Caixa Pollença: Sektoreko krisi handiaren ondoren Espainian bizirik mantentzea lortu zuen aurrezki kutxetako bat da (Colonya Caixa Pollença, d.g.A). Colonya, Caixa Pollença 1880an Guillem Cifre de Colonyal-ek sortu zuen Balear Irletan, hasiera batean Caixa d'Estalvis Colonya izena zuena; gizon hau pedagogo eta abokatu zen, bere herrian kultur eta gizarte arloko proiektuak garatzen egin zuen lan, eta filosofia horri eutsi dio gaur egun arte. Langileen kazikismoarekin, abandonamenduekin eta esplotazioekin bukatzeko asmoz, kapitalismoak eskaintzen zituen aukeren barruan autonomia ekonomikoa ahalbidetzea zen bere helburua (Colonya Caixa Pollença, d.g.B). Baserritarren eta herriaren zerbitzura zabaldu zuen, aurrezki kutxak emandako kredituekin jornalariak lurren jabe bihurtzeko xedez. Gaur egun, Balear Irletan nagusitzen den eta aktibo finantzarioak erabiltzen dituen aurrezki kutxa etikoa da, gizarte eta ingurumena errespetatzen dituzten proiektuak babestuz

Caixa d'Enginyers: Kreditu kooperatiba katalan hau 1967an jaio zen Ingeniariei Elkarte Soziokultural eta Teknologikoa izenarekin. Jatorria Katalunian badago ere, gaur egun Espainia osoan funtzionatzen du, eta bazkide izateko kooperatibako kide izan behar duzu. Bere inbertsio arduratsuegatik nabarmentzen da, eta bertako filosofia, kreditu kooperatiba hau banka etikoa izanik, ingurumena kaltetzen duten edota armekin, tabakoarekin edo proiektuekin zerikusia duen edozein enpresatan ez inbertitzean datza (Bargalló, 2018).

Arç Kooperatiba eta Seryes Seguros: Azkenik, bankuaz harago, badaude aseguru etikoaren arloan nabarmentzen diren bi erakunde Espainian: Arç Cooperativa eta Seryes Seguros (Servicios Y Estudios De Seguros Correduría De Seguros, S.A.) aseguru agenteak (Bargalló, 2018). Arç kooperatiboak Gizarte eta Elkartasun Ekonomian espezializatutako proiektuetan hartzen du parte. Aholkularitza etiko eta solidarioko zerbitzuak eskaintzen ditu 1983az geroztik, kooperatiba ereduaren arabera autogestionatuta. Aseguru entitate tradizionalentzako alternatiba da. Seryes-i buruz,

1987an sortutako artekaritza aseguruua da, aseguru-sektorerara kudeaketa etikoa eta gardena ekartzeko bokazioa du. Bere helburu nagusia aseguruaren ideia bere jatorrira itzultzea da: desberdintasun soziala saihesteko mekanismoa izatea.

2.1.4.2.Taula: Espainiako Banku Etikoen datuak

ENTITATEAREN IZENA	HERRIALDEA/JATORRIA	SORTUTAKO URTEA	ERAKUNDE MOTA
Triodos Bank	Herbehereak	1980	S.A (banketxea)
Banca Popolara Etica (Fiare Banca Ética)	Italia (Espainia eta Italia)	1999 (2014)	Erakunde kooperatiba (banketxe kooperatiboa)
Coop 57	Espainia, Katalunia	1987	Kreditu kooperatiba
Oikocredit	Herbehereak	1975	Finantza eta kooperatiba elkarte
Colonya, Caixa Pollença	Espainia, Balear Irlak	1880	Aurrezki kutxa
Caixa d'Enginyers	Espainia, Katalunia	1967	Kreditu kooperatiba
Arç Kooperatiba	Espainia	1983	Aholkularitza kooperatiboa (Coop 57-arekin lotuta)
Seryes Seguros	Espainia	1987	Artekaritza Aseguruua

Iturria: Geuk egina (2020)

Triodos Bank-ek 2019ko urrian argitaratutako berriarekin batera berretsi dezakegu banka etikoak pixkanaka indarra hartzen doazela Espainian (Solís, 2019). Halaxe dio Carmen Solís-ek idatzitako artikulua, non banka etikoen zuzendarien hitzak biltzen dituen.

Finantza etikoek azken 2019. urtean Espainian izandako gorakada erakusten du Finantza etikoen barometroaren arabera 2018tik 2019ra bitartean finantza etikoek Espainian gorakada izan dutela erakusten du. Gainera, Sergi Salavert, Finantza Etikoko Behatokiko koordinatzailea, baikor azaldu da (Solís, 2019): “la evolución de las finanzas éticas en España continúa siendo positiva”. Espainian finantza erakunde etikoek emandako maileguak nabarmentzen dira batez ere, 1.267 milioi eurotik 1.474 milioi izatera igaro baitira 2018an,% 16,31 handituz.

Finantza Etikoen Behatokia (Observatorio de las Finanzas Éticas) Estatuko finantza sistema etikoko eragile desberdinen arteko topagunea da. FETS-ek (Financement Étic i Solidari) sustatu eta koordinatzen du; finantza etikoek Katalunia eta Espainiako errealitate sozioekonomikoan duten eragina behatu, aztertu eta honen ebaluazio lanak eskaintzen ditu. Horrela azaltzen du bertan (FETS, 2020).

Triodos-eko argitalpenarekin jarraituz banku etikoak bere baloreak banku tradizionalen oinarrietatik bereizi nahi ditu. Argi ikusten da Banku Etikoek ikuspuntua (Solís, 2019): “está muy lejos de las actividades especulativas, la financiación de la armas o la apertura de filiales en paraísos fiscales para eludir impuestos”, diote behatokitik. Tokiko eta Estatuko sareen bidez gizarte eta ingurumenean eragin positiboa duten proiektuak finantzatzearen alde egiten dute printzipio etiko hauek jarraitzen dituzten erakundeek.

Espanian, finantzaketa gehien jaso duten proiektuak ingurumen izaerakoak dira, esaterako, energia berriztagarriari, bidezko merkataritzari, nekazaritza ekologikoari, hondakinen kudeaketari edo eraikuntza jasagarriari lotutakoak. Zehazki, 594 milioi bideratzen dira, guztien %40,64. Ondorengo sektoreek jarraitzen diote: gizarte sektorea (osasuna, ongizatea, komunitatearen garapena eta hezkuntza), kredituen %22,84rekin; maileguak administrazioei eta partikularrei %22,11; eta kultura sektorea (aisia, artea, komunikazioa eta kultura jarduerak), %14,41. Kapital soziala %6 hazi zen 2017tik 2018ra bitartean, 191,5 milioi eurora iritsiz.

Castañedak, Triodos-eko partaideak, gardentasunaren oinarriz azpimarratzen du (Solís, 2019): “nola izan daiteke ez jakitea bankuak zertan inbertitzen duen gure dirua?”. Erakunde gehiago gardentasunaren konpromisoa hartzera bultzatzen du. Bestalde, Contreras-ek (Solís, 2019), Fiare Banca Ética-ko arduradunak: "gure bezeroek diruarekin zer egiten dugun galdetzen digute eta ez zenbateko irabazia izango duten.". Gainera, adierazi du banku txiki baten gertutasunak gizarteari segurtasun handiagoa ematen diola. Aldiz, Guillermo Villak, Coop57ko helburu garrantzitsuenetako bat eraldaketa soziala dela dio. Azkenik, Sánchez (Solís, 2019), Seryes aseguru konpainiako zuzendaria, kritikoa da, aseguru etikoa sektoreko gehiegikeriari aurre egiteko sortutako finantza tresna gisa dela esaten du, horregatik finantza etikoaren alde agertzen da.

Bestalde, La Vanguardia-ko (2019) artikuluan, 2007tik 2017ra bitartean banku etikoek %3,98ko urteko batez besteko etekin ekonomikoa lortu zutela ageri da, hau da, entitate tradizionaletan erregistratutako %1,23koa baino hiru aldiz handiagoa dena. “Banku etikoek hirukoiztu egin dute banku tradizionalen errentagarritasuna 2007 eta 2017 artean”.

Europar finantza iraunkorrera bideratutako ikerketak 23 banku etikoen emaitzak alderatu ditu Europar garrantzi gehien duten 15 banku sistemikoekin, Santander barne. Ekonomia errealean inbertitzen duten banku etikoek %77ko portzentajea izan dute aktiboen gaineko maileguetan 2007tik 2017ra bitartean, eta banku tradizionalen zifra, aldiz, %40,52ekoa izan da. Era berean, adierazten du banku etikoen aktibo guztiak, baita gizarte eta ingurumen irizpideak kontuan hartzen dituztenak ere, urteko batez beste %9,66 hazi direla azken hamarkadan, erakunde tradizionalen %1eko jaitzierarekin alderatuta. Gainera, erakunde horiek urteko %11ko maileguen batez besteko hazkundea izan zuten, banku sistemikoen %0,94ren aldean. Gordailuen urteko batez besteko hazkundeari dagokionez, %11ra iritsi zen entitate etikoetan eta %2ra mantendu zen tradizionaletan; Europako banku etikoen balio garbia, aldiz, urteko batez bestekoa %10 igo zen hamar urteotan; sistemikoena %4ra.

Beraz, ondoriozta dezakegu, oraindik ere banka tradizionala banka etikoaren gainetik badago ere, banka etikoko proposamenak indar handia hartzen hasi direla eta ondo bideratuta doaz gure herrialdeko ekonomian, nahiz eta oraindik ibilbide luzea izan bere

helburua lortzeko. Halaxe adierazi du Triodos Bank-eko komunikazio departamentuko Herce-k (FETS, XES, 2018) "Bide onetik goaz. Hamar urte hauetan barometroan islatzen diren zifrak erreparatu besterik ez dugu egin behar. Ikusten dugu nola hazi diren balantze kopuruak eta nola hazi den ekonomia errealeko proiektuetarako finantzaketa".

Finantza Etikoen historian ikusi dugunez, honen sorreraren arrazoietakoa bat banku tradizionalengandik zegoen deskonfiantza izan zen, bezeroak ez baitziren seguru sentitzen banku sistematikoetan beraien dirua uzten. Bestalde, gaur egungo egoerari erreparatuz, gizartearen ikuspegi aldaketa somatu daiteke. Bankuetako bezeroak beraien diruaren helmugan interesatzen hasiak dira, hau da, beraien aurrezkien erabileraren kontziente izan nahi dute. Gainera bankuek zenbait printzipioekin lan egiten dutela berretsi nahi dute. Esan bezala, mugimendu honek banku etikoen hazkundera dakar, beraz, mundu honetan lanean ari diren erakunde eta pertsona guztiak itxaropentsu daude finantza etikoek etorkizun positibo bat izateko.

Espainiako banku etikoen zifrek etengabeko hazkundera erakusten dute beren jardueretan, bezero eta baliabide kopuruak gorantz doaz, eta beraz, fondo horiek mailegu kopuru handiago batera bideratzea dakar. Etorkizunera begira, Setemen arabera (Setem, d.g.) joera berdinarekin jarraitzea espero da, geroz eta bezero gehiagorengana heltzeko ahalmena izanik. Herrialde askotan, bankuak ekonomia soziala eta solidarioan oinarritzen diren erakundeengatik egiten dute apustu, izaera etikoak dituzten jarduerak garatzeko eta zabaltzeko. Banku etikoen etorkizunari lotuta, ezinbesteko da herrialde bakoitzean Inbertsio Sozialki Arduratsuen testuinguru legegile bat garatzea. Izan ere, Europar oraindik badaude herrialdeak non banku etikoen sorrera eta hazkuntza bultzatzen ez duen legedia inposatzen den. Gai horien inguruan sortutako ekimenen emaitza positiboa espero da eta Inbertsio Sozialki Arduratsuek Europako eta Espainiako garapenari bultzada ematea.

2.1.5. Finantza etikoen oinarriak

Printzipio etikoak, orokorrean gizakiok bete beharko genituzkeen oinarriak dira; justuak izatea, berdintasuna bultzatzea, zintzotasunez jokatzeko, esaterako. Baina finantza etikoen printzipioez hitz egiten badugu, gizakion oinarri etikoez gain, beste oinarri batzuk nabarmentzen dira (FETS, d.g.).

Banku etiko bakoitzak oinarri batzuei beste batzuei baino garrantzi gehiago ematen diete, beraien beharretara egokituz, baina beti dute finantza etikoen oinarri orokorrak jarraitzeko konpromisoa. Ondorengoak dira erakunde etiko batek jarraitu behar dituen printzipioak:

ETEKIN HIRUKOITZA: erakunde etikoek gizartearen, kulturaren eta ingurumenaren hobekuntza sustatzen duten enpresak soilik finantzatzeko dituzte. Eta zentzu berean, banku etiko hauek ere ingurumena, laneko segurtasuna eta funtsezko eskubideak errespetatzeko konpromisoa izango dute. Horrela, finantza etikoek, krediturako sarbidea erraztuko diete tradizionalki baztertu diren proiektu iraunkorrei.

EKONOMIA ERREALA: finantza etikoek ez dute jarduera espekulatiboetan inbertitzen, baizik eta ekonomia errealean eta batez ere ekonomia sozial eta solidarioan. Gizarte positiboago bat helburu duten egitasmoak bultzatzen ditu, pertsonak eta planeta ardatzean jarritz.

PARTE HARTZEA: Askotan, finantza erakunde etikoak kooperatibak dira, non erabakiak modu demokratikoan gauzatzen diren kide bakoitzak egindako ekarpena kontuan hartu gabe; pertsona bat boto bat. Bazkideek, bozkatzeaz gain, entitatearen oinarrizko politikei buruzko erabakiak hartuko dituzte.

GARDENTASUNA: Gardentasuna funtsezko zutabea da finantza etikoetan, honek gordailuetako dirua non inbertitzen den jakitea suposatzen du. Hau da, bezeroei jarduera guztiei eta horien ondorioei buruzko informazio erregularra eta publikoa eskaintzea da helburua. Beraz, bezeroek zehatz mehatz jakingo dute zein proiektutara zuzentzen diren beraien aurrezkiak, bezero eta entitatearen arteko konfiantza eraikiz.

KULTURA ETIKOA: Etika aplikatuaren printzipioa ere deitzen zaio. Etika inbertsio irizpideen aplikazioan eta kredituak ematean egin beharreko etengabeko gogoeta prozesu bezala ulertzen da. Irizpide etikoak finantza-erakunde etikoaren jarduera guztietan egon behar du presente. Hau da, finantza erakunde etiko batek maila guztietan etikoa izan behar du.

NIRE DIRUAREKIN EZ: bezeroen baloreen eta diruaren helmugaren arteko koherentzia ezinbestekoa da. Erakunde etikoek dirua modu koherentean inbertitzeko konpromisoa dute, hau da, bezeroen baloreak biltzen dituzten proiektuetara bideratuko dituzte aurrezkiak, horrez gain gizartearentzat eta planetarentzat kaltegarriak diren inbertsioak baztertuko dituzte, hala nola, armagintza sektorea, espekulazioak, kutsadura jarduerak, etab.

Baina ez dugu ahaztu behar erakunde etikoek etorkizunean bizirik jarraitzeko etekinak lortu behar dituztela. Finantzatzeko modu berritzaileak eta ekimen iraunkorrak garatzeko lan egiten badute ere, banku etiko hauek lehiakorrak eta errentagarriak izan behar dira merkatuan. Puntu honekin bukatzeko, eta era berean Finantza Etikoen azalpena laburbiltzeko, Banku Tradizionalen eta Banku Etikoen arteko desberdintasunak azpimarratuko ditugu. Banku Tradizionalen lan egiteko modua ezaguna denez, ez dugu honen azalpena sakonduko. Beraz, ondorengo atalera pasatu baino lehen komeni da orain arteko informazio guztia biltzea ideia argiago bat izateko.

2.1.5.1.Taula: Banku Tradizional eta Banku Etikoen alderaketa

EZAUGARRIAK	BANKU TRADIZIONALA	BANKU ETIKOA
Zertan inbertitu?	Proiektu errentagarrietan, espekulazioan	Ingurumen eta gizarte positiboa ziurtatzen duten proiektuetan
Ekonomia	Kapitalista batez ere	Soziala eta solidarioa
Berankortasun Tasa	Handiagoa	Txikiagoa
Gardentasuna	Ez dira gardenak	Guztiz gardenak
Parte Hartzea	Akziodunen artean	Bazkide/langileen artean
Helburu nagusia	Aberastasuna	Ongizate komuna
Merkatu Kuota	Handia	Txikiagoa, baina handitzen

Iturria: Geuk egina (2020)

2.2. LABORAL KUTXA

2.2.1. Laboral Kutxaren jaiotza eta garapena

Laboral Kutxa Euskal Herriko kreditu kooperatiba bat da, 2012. urtean Caja Laboral Sociedad Cooperativa de Crédito (Euskadiko Kutxa) eta Ipar Kutxa Rural Sociedad Cooperativa de Crédito (Ipar Kutxa) fusionatu zirenean eman zen (elEconomista, 2012).

Laboral Kutxak bide luzea egin behar izan du gaur egun dena izatera heldu arte, batez ere, Euskadiko Kutxaren ibilbidean zentratuko gara, izan ere, Laboral Kutxa gaur egun denaren oinarri esanguratsuenak bertatik transmitituak izan dira, gainera finantza etikoekin lotura estuena duen Laboral Kutxaren pilarea bera da. Euskadiko Kutxa, edo hobeto ezagutzen den bezala Caja Laboral Popular, gazteleraz, Jose María Arizmendiarietaren ideietatik sortu zen 1959. urtean, lankidetzan balioa zainetan zeraman apaiz markinarraren baloreetatik (Ormaetxea, 2003).

2.2.1.1. Irudia: Jose Maria Arizmendiarieta



Iturria: Estornés (d.g.)

Atal hau Laboral Kutxak gaur egun dituen baloreak ulertzeko ezinbestekoa da, bere euskarriak ezagutuko baititugu (Arizmendiarieta 100urte, 2015). Arizmendiarieta, Arrasateko parrokiako apaiz lagunkide bezala lan egiteko izendatu zuten, fedean sinesten zuen gizona zen. Erljioari lotuta egon izan zen txikitatik, izan ere, apaiz eskola baten egin zituen bere ikasketen urte batzuk. Esan daiteke, Kristautasunean oinarrituz etika baloreak biltzen zituela, garai horretan etika hitza existitu ez arren, etika definizio hori kristautasunetik hartzen zuen. Fedeari jarraituz gizarte hobeko bat eraiki nahi zuen.

Industria hirietako garaiko arazoak ezagutzen zituen, eta bazekien herriak laguntza behar zuela, orduko ekonomiak kezka pizten zionez lanari ekin zion. Hasiera batean dagoeneko martxan zeuden enpresetan bere ideiak eransten saiatu zen. Garai hartan "Zerrajera" zen Arrasateko lantegi ezagunena eta bertara jo zuen (Irizar, A. eta Kareaga, A., 2003). Zerrajerako langileen baldintzak ez ziren guztiz onesgarriak; lan orduen eta soldaten artean ez zegoen balantzarik, langileen eta buruzagien artean komunikazio falta zegoen eta jabeek hartzen zituzten erabakiak gehienetan langileak kaltetzen zituzten. Arizmendiarieta hierarkikoki eraikitako lantegi baten aurrea topatu zenez ez zuen arrakastarik izan. Beraz, beste alternatiba batzuen bila hasi zen eta bere ideiak kooperatiba eredura hurbiltzen zirela konturatu zen.

Aberastasuna banatzeko grina zuen, gizarteko klaseak suntsitzeko gutizia, eta kooperatibak ezaugarri hori praktikan jartzen ahalbidetzen zion, izan ere, irabaziak bazkide eta aldi berean langileen artean banatuko ziren, eta ez soilik akziodunen artean. Erabakiak ere guztion artean hartuko ziren, baina horretarako bazkide jakintsuak behar ziren, bestela porrot egingo luke enpresak. Kontua zen garai horretan jakintasun eza nabaria zela, gutxi batzuk soilik zuten ikasketak burutzeko aukera.

Beraz, Arizmendiarieta jaunak 1943. urtean Eskola Profesionala sortu zuen (Irizar, A. eta Kareaga, A., 2003), gaur egun Mondragon unibertsitatea dena, etorkizuneko bazkideek lanean hasi aurretik jakintasuna izan zezaten, eta horrekin batera gizarte jakintsuago bat hezteko asmoz. Horrez gain, bazkideen artean inplikazioa ere bilatzen zuen, bai helburu berdinak zituzten langileak baita batasunari jarraitzeko prest zeuden langileak ere.

Esan bezala, 1943. urte aldera hasi zen haren mugimendu kooperatiboa Arrasaten nabarmentzen, etorkizun bat eraikitzeko ezinbestekoa zen indarrak batzea (Arizmendiarieta 100urte, 2015). Demokratikoki antolatutako Eskola Profesionala sortu ondoren, bertan ikasitako bost gizonen 1956 urte aldera ULGOR sortu zuten, ondoren Fagor Electrodomésticos-en bihurtu zena; berogailuak ekoizten zituen kooperatiba txiki bat zen. Urte bat beranduago, 1957an, Arrasate Kooperatiba eratu zen (egungo Fagor Arrasate), Arizmendiarietak bultzatuta baita; ondoren 1963an Copreci jaio zen, sukalde eta berogailuetarako segurtasun balbula elektromagnetikoak fabrikatzen zituena (Copreci, d.g.). Hiru kooperatiba hauek antzeko esparruan egiten zuten lan, gainera konplizitatea eta konfiantza nabarmena zen beraien artean, beraz, beste hainbat kooperatibekin batuz ULARCO eratu zuten 1965ean (Añamendi Eusko Entziklopedia, d.g.). Izenak adierazten duen bezala ULARCO; ULGOR, Arrasate eta Copreci kooperatiben izenen lehenengo bi letrak hartuz osatu zuten talde berriaren izena, nahiz eta beste kooperatiba batzuk ere parte hartu zuten bateraketa honetan. Momentu honetan jarri zen gaur egungo Mondragon Korporazioaren (MCC, Mondragón Corporación Cooperativa) lehen hazia. Berehala sortu ziren Funcor

(egungo Fagor Ederlan) eta San Jose Kontsumo Kooperatiba (gaur egungo Eroskiren parte dena) ere. Gero eta jende gehiagok egin zuen bat ekimenarekin, eta argi utzi zuten lankidetzak funtzionatu egiten zuela. Langile kopurua ere nabarmen igo zen, hauek indarrak batzea erabaki zuten eta beraien etorkizunaren jabe izatea. Enpresa kooperatibo hauek finantzaketa beharra zuten, eta Arizmendiarrietak bazekien sortutako kooperatibak garaiko beste enpresengandik desberdinak zirela, berritzaileak. Era horretan ohartu zen banku tradizional eta indartsuek ez zietela beraien beharrak asetzeko haina finantzaketa eskainiko. Beraz, jendartearen aurrezkirako joera bultzatu eta baliabide horiek aipatutako enpresetara bideratzeko sortu zen Euskadiko Kutxa 1959. urtean (Ormaetxea, 2003). Erakunde kooperatibo hauek batuta Mondragon Taldea sortu zen, ondoren Ikerlan batuko zitzairen, talde honi laguntza teknologikoak eta berrikuntzen berri emango ziona. Kontuan izan behar da kooperatiba guzti hauek langileak etekinen aurretik jartzen zituztela, hau da, lehenengo langileen ongizatea bultzatzen zuten eta ondoren irabazietan zentratuko ziren. Ideia hau argi gelditzea ezinbestekoa da, Jose Maria Arizmendiarrietaren printzipio garrantzitsu bat zelako.

Esan bezala, gaur egungo Laboral Kutxa Euskadiko Kutxa eta Ipar Kutxaren fusioaren ondorioz sortu zen. Beraz, lehenengo bi konponente hauek beraien osotasunean ezagutuko ditugu, ondoren Laboral Kutxaren oinarriak argi izateko. Euskadiko Kutxarekin hasiko gara eta Ipar Kutxarekin jarraituko dugu.

2.2.1.2. Irudia: Caja Laboral-en logoa



Iturria: Laboral Kutxa (2013)

Euskadiko Kutxa edota Caja Laboral Popular bankuaren garapen historikoari dagokionez, Laboral Kutxak bere web orrian ondo azaltzen duen bezala (Laboral Kutxa, d.g.A) Euskadiko Kutxa gainegiturazko entitatea izaten hasi zen, eta Mondragon Taldearen koordinazio finantzarioaren, industrialaren eta sozialaren ardura zuen bere gain. Kreditu kooperatiba izateaz gain, langile-kooperatiba zenez, bazkideek enpresan parte hartzeko eskubidea eta betebeharra zuten Euskadiko Kutxan, kooperatibak berak erabakitako organoen bidez.

Gizarte Ekintzetarako Fondoek ekarpenetan, kultura bultzatzeko, euskara suspertzeko eta euskal ekonomiari buruzko txostena argitaratzeko emandako laguntzak nabarmentzen ziren. Entitatearen garaiko balioak ezin hobeto islatzen ziren. Herrietako langileen inplikazio handiari esker, jendeak estimazio handia hartu zion Kutxari.

Kooperatibak sortzen ziren lekuetan gauzatu zuen hedapen geografikoa Caja Laboralek. Urtez urte, sukurtsal berriak zabaldu zituen, esaterako, Bizkaian nekazaritzari eta abeltzaintzari lotutako herri nagusietan hasi zen barreiatzen. 1979an, ministro-agindu bati esker, atzerriko eragiketak egiteko gaitasuna bereganatu zuen, kooperatiben atzerriko negozioak bideratzeko.

Erakundea handitzen joan zen eta Mondragon Taldeko kooperatiben finantza-euskarri izateaz gain, bezero partikularren negozio-eremua bultzatzea erabaki zen, besteak beste, salmenten finantzaziorari eta mailegu hipotekarioei ekin zieten. Urte haietan, Euskadiko Kutxak laguntza handia eman zien irakaskuntzako eta hezkuntzako zenbait ekimeni; besteak beste, Ikerlan-i (ikerkuntza) eta Hezibide Elkarteari. Honek finantza zein enpresa-posizioa asko sendotzea ekarri zuen.

Urteak igaro ahala partikularren negozio eremua garatzen joan zen. Zerbitzu berriak eskaintzen zihoazen heinean, bezeroen beharrak asetzeko produktuak eskaintzen hasi ziren; Superlibreta, Superkontua, Aseguruak, Pentsio Aurrezkoa, Leasinga, ETE-entzako zerbitzuak, etab.

Behin Caja Laboralek nolabaiteko garapena eta egonkortasuna eskuratu zuenean, beste etapa bati ekin zion (Laboral Kutxa, d.g.B). Oraingoan zerbitzu-kalitateak hartu zuen garrantzia, eta esan behar da gaur egun ere ardatz horrek indarrean jarraitzen duela entitatean. Arlo honetan lanean hasi eta 1992 eta 1999 urteen bitartean hainbat aitorten jaso zituen bankuak, horietako bat Datamonitor enpresarena, merkatu-adimena analizatzen duen nazioarteko konpainiarena. Horrek, errentagarritasunaren rankingean Europako hirugarren postuan kokatu zuen Caja Laboral. The Banker-ek, berriz, urte haietako Laboral Kutxa munduko 38. lekuan kokatu zuen kaudimenaren ikuspegitik.

Gainera Lan Arriskuen Prebentzioaren alorrean OHSAS 18001 izendapena jaso zuen, osasunaren eta lan segurtasunaren eremuan ezarritako araubideei esker. Konpromiso etikoak ere hartu zituen nazioartean, besteak beste, 2006an Nazio Batuen Erakundearen Mailako Hitzarmena sinatu zuen. Hitzarmen horretan agertzen diren konpromisoen bilakaera urtero agertzen zen erakundearen Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren txostenean.

2.2.1.3.Irudia: Ipar Kutxa-ren logoa



Iturria: Brands of the World (2013)

Bestalde, Ipar Kutxa gailendu behar da, Laboral Kutxako fusioko beste partaidea, (Caja Rural Vasca, d.g.). 1965. urtean sortu zen Bilbon, Bizkaiko abeltzainen bi kooperatibek bultzatuta; alde batetik Beyena, esnearen sektoreko abeltzainak biltzen zituen, eta Uteco, nekazarien kooperatiba zena. Orduko Ipar Kutxa aipatutako enpresa hauen bulegotan hasi zen finantza-erakunde gisa lanean. Gorabehera ekonomikoak pasa ondoren Bizkaitik kanpo hedatzen hasi zen pixkanaka. 2003an Gipuzkoan lehen bulegoak zabaldu zituen.

Esan bezala, 2012ko martxoan Euskadiko Kutxak eta Ipar Kutxak bat egingo zutela jakinarazi zuten, eta halaxe azaldu zuen argitaratutako berria (eitb, 2013). Bat egite mailakatua egitea erabaki zuten bi erakundeek, bezeroei ahalik eta enbarazu gutxien egiteko asmoarekin. Beraz, erakundearekin lotura estuena zuten bezeroei bazkide izateko aukera eman zieten, 2013ko otsailetik aurrera 2.000 euroko gutxieneko inbertsioa egiten zuten bezeroei gizarte-kapitalean parte hartzeko eta kooperatibista txiki bihurtzeko aukera zabaldu zitzaien.

2.2.1.4. Irudia: Laboral Kutxa-ren logoa



Iturria: Efecom (2018)

2013ko apirilaren bukaeran eman zen ezagutzera Euskadiko Kutxa eta Ipar Kutxaren arteko fusioaren izen ofiziala: Laboral Kutxa, Estatuko finantza-sistemaren banka prozesu tradizionalarekiko eredu alternatibo bat eskaintzen zuen. Euskal Herriko lehen kreditu kooperatiba izango zen, Euskal Herriko hirugarren finantza-erakundea (Kutxabank eta BBVAren atzetik) eta Espainiako Estatuko bigarren kreditu kooperatiba (Cajamar-en ondoren).

Erakundeen kalkuluen arabera eta eitb-ko berriari jarraituz (eitb, 2013), fusioaren eraginez, 750.000 bezero zituen Euskal Autonomia Erkidegoan, 110.000 Nafarroako Foru Erkidegoan, eta 1.300.000 baino gehiago guztira, 2.126 bazkide gutxi gorabehera eta 24.400 milioi euro inguruko negozioa. Momentu horretan 421 bulego zituen Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroa Garaian, Aragoian, Errioxan, Gaztela eta Leonen, Kantabrian, Asturiasen eta Madrilan, nahiz eta bulego kopurua igo egin zen denbora gutxian.

2.2.2. Laboral Kuxaren gaur egungo egoera

Laboral Kutxaren eginkizuna betidanik izan da bere bazkide eta bezeroen finantza beharrei erantzutea, horregatik enpresak ezinbestekotzat jotzen du kalitateari, kudeaketari eta zerbitzuei esfortzu handi bat eskaintzea (Laboral Kutxa, 2014a). Kreditu-kooperatiba bat da, non kooperatiben oinarrizko printzipioen arabera gobernatzen duen bere burua. Bere forma juridikoaren arabera, kooperatiba gisa eratzten da eta hori da Laboral Kutxaren ezaugarri esanguratsuenetakoa bat, bazkideak enpresaren kide dira, beraz, kooperatibaren kapitala, eta kooperatiba bera ere haien esku dago. Horrek, erakundearen barnean langileen parte hartzea ahalbidetzen du, iritzia emanez eta erabaki garrantzitsuak hartuz. Zentzu honetan, esan daiteke erakunde demokratikoa dela, izan ere, erabakiak hartzerakoan lan-bazkide guztiak dute boto eskubidea, haietako bakoitzaren botoa berdina izanik, bazkide bakoitzak enpresan inbertitu duen kapitala edozein dela ere. Ildo horretan, kooperatiben filosofia pertsona batek boto bakarra izatea da. Bertako zuzendaritza-organoak ez daude erakunde politikoen esku. Laboral Kutxa hainbat organo demokratikok zuzentzen dute, eta horien artean Kontseilu Errektorea nabarmentzen da. Urtean behin, gutxienez, Batzar Nagusia biltzen da, kooperatibako kide guztiak dute parte hartzeko eskubidea, eta demokratikoki, Kontseilu Errektoreak erabakiak hartzen ditu; era berean goi mailako kudeaketa, zuzendariak ikuskatzea eta kooperatibaren ordezkartza dira Kontseilu Errektorearen ardura nagusiak. Kideen herena bazkide langileen ordezkariak dira, eta entitatearen goi mailako erabakietan parte hartzen dute. Gaur egun, Laboral Kutxako Gobernu Kontseilua Txomin Garciak zuzentzen du, hau kooperatiba ordezkartzen eta kudeatzen duen organoa da.

Horrez gain, Laboral Kutxak bere nortasuna eta printzipioak ere lantzen ditu. Azaldu bezala, kooperatiben oinarrizko baloreak elkarrekiko laguntza, erantzukizuna, demokrazia, berdintasuna, ekitatea eta elkartasuna dira. Kideek honako balio etiko hauetan sinesten dute: onestasuna, gardentasuna, gizarte-erantzukizuna eta hurkoarekiko ardura. Entitateko langileak, beste kooperatiba eta bezero partikular batzuk dira Laboral Kutxaren jabeak. Enpresaren partaide diren hauek gizartearen onurarako izango den aberastasuna eta enplegua sortzea sustatzen dute, banka erabilgarri bezala definituz (Laboral kutxa, 2014a).

Laboral Kutxak bere entitatearen izaeratik azpimarratzen dituen ezaugarriak ondorengoak dira: irabazien banaketa, gizartearen garapena sustatzen dituzten proiektuak laguntzea, langileak jabeak direla, gizon eta emakumeen arteko eskubide eta aukera-berdintasuna, euskara bultzatzea, besteak beste. Atal honetan zehar sakonago aztertuko ditugu ezaugarri hauek. Esan bezala, Laboral Kutxa kreditu kooperatiba da eta merkatuko beste hainbat banku tradizionalengandik desberdintzen da. Gure gaian murgildu baino lehen bi banku mota hauen arteko alderaketa argi gelditzea komeni da.

2.2.2.1.Taula: S.A eta Kooperatibaren alderaketa

S.A	KOOPERATIBA
Jabeak eta langileak desberdinduta	Langileak bazkideak dira
Hierarkizatutako eredia	Eredu horizontalagoa
Boto eskubidea soilik akziodunek	Boto eskubidea bazkide eta beraz langile guztiek
Botoa ekarpenaren arabera	Bazkide bat boto bat
Autokrazia	Demokratikoa
Jabeek hartu langileen erabakiak	Langileek beraien erabakiak hartu

Iturria: Geuk egina (2020)

Laboral Kutxa Banku Etikoa bezala kalifikatzen ez den arren, baditu arlo soziala eta ingurugirokoa zaintzen eta errespetatzen dituen ekimenak. Eta esan genezake, ikuspuntu honetatik ikusita banku tradizionalen sistematik urruti geratzen dela, edo behintzat banku sistematikoetatik aldendu nahi dela.

2.2.2.1.Irudia: Laboral Kutxaren kokapena Espainian



Iturria: Parra (2016)

Irudian ikusi dezakegunez, Laboral Kutxa horrela dago banatuta Espainian zehar (Parra, 2016). Bere jatorriak zerikusi handia dauka gaur egun Espainian duen kokalekuarekin. Euskadiko Kutxa Gipuzkoan sortu zen, konkretuki Arrasaten eta poliki-poliki Euskal Herri osora zabaldu zen, horregatik pilatzen dira inguru horretan bulego gehien. Ondoren Espainiako beste zenbat puntu estrategikoetan ere kokatu da, esaterako, Madrilen, Bartzelonan, Gaztela eta Leonen, Zaragozan eta Kantauri Isurialdean.

Honez gain, Laboral Kutxak baditu Espainiatik kanpo aliantza batzuk. Gai hau aipatzea interesgarria izan daiteke banku kooperatiba txikia izan arren mundu mailan presentzia duelako: "Nazioarteko Aliatuak" izena darama.

Laboral Kutxaren ekintzetako bat, nazioarteko beste herrialde batzuetako enpresekin elkartzea da, beti ere interes eta ezaugarri berdinak partekatzen dituztenekin, hala nola Europa ea Amerikako finantza erakundeekin. Hona hemen adibide batzuk (Laboral Kutxa, 2016a): Crèdit Coopératif (Frantzia), Grupo Financiero Banorte (Mexiko), National Cooperative Bank (Estatu Batuak) eta Raiffeisen Bank International (Austria). Akordio hauekin Laboral Kutxak laguntza eman nahi izan die Euskal Herritik kanpo kokatzen diren euskal enpresei, beren nazioartekotze-prozesua gauza dezaten. Laboral Kutxako bezeroek errazago egin ditzakete han banku-prozedura guztiak, sinpleenetatik hasi eta konplexuenetara. Laboral Kutxak hartutako akordio hauek abantaila ugari eskaintzen die bere bezeroei, askatasuna, merkatu berrietara zabaltzeko aukera eta urruti egon arren gertutasuna erakusten die.

Nazioarteko Aliantzak alde batera utzita, Laboral Kutxako azken urteotako emaitzak aztertuko ditugu, ikusi daitekeen bezala emaitzak positiboak izan dira, edo behintzat halaxe adierazi da. El Economista-ren web orrian azaldu bezala (efecom, 2018), Laboral Kutxak 121,4 milioi euroko irabazia lortu zuen 2017an, honek aurreko urtean baino %9,1 gehiago suposatzen du, horrela azaldu zuen zuzendari nagusiak:

"Lehiako giroan bankuaren arduratako bat krisian zehar galdutako errentagarritasun maila berreskuratzea da", Euskadiko kreditu kooperatibak dioenez, "baliabide propioekin alderatuta errentagarritasuna hobetu da (ROE), %7,53ra igo da". Era berean, entitatearen "osasun egoera ona" azaltzen duten beste elementu batzuk ere azpimarratu ditu, hala nola "berankortasun tasa baxua", eta horrekin kooperatibak urtea itxi du, %5,09; "likidezia maila altuak", LTD %78,1; eta bere "indar handia kaudimenaren arabera neurtuta" dago, %18,14ko CET1. Gainera, kreditu inbertsioak "behin betiko joera aldatzen" hasi ziren, erregistratutako maileguen formalizazioen igoera nabarmenarekin batera, etxebizitza erosteko hipoteka-kreditua %10,2 hazi eta helburu komertzialak %12,5.

Hurrengo ekitaldiari begira, negozio errepikatuaren errentagarritasunak hiru aldagai esanguratsuren portaera baldintzatzen jarraituko du: kredituaren, interes-tasen eta berankortasunaren bilakaera, aldi berean konfiantza agertu zuen "kreditu inbertsioaren hobekuntza progresiboa" eta "berankortasun atalean" portaera onak izan zituela. Beraz, ekonomikoki 2017an entitatea egoera onean zegoela ziurtatzen du, zifra egokiak eta positiboak izan baitziren.

2018an ere, emaitzak bide berdina jarraitu zuten, Laboral Kutxak gaur egun konpromiso jasangarri batzuk hartzen ditu, eta hauek hobeto ezagutzeko Enpresaren Gizarte Erantzukizunaren (EGE) memoria jarraituko dugu (Laboral Kutxa, 2019a). Izan ere, Banku Etikoaren zati handi bat gizartearen onuran zentratzen da, horrela, Laboral Kutxak gai honen inguruan duen ikuspuntua ezagutuko dugu. Txosten hau bost zatitan banatzen da; bezeroak, pertsonak, jasangarritasuna ingurumenean, gizartea eta tokiko banka.


2019an Laboral Kutxak 60 urteko ibilbidea bete zuen, eta bada urte guzti horietan aldatu ez den zerbait: gizartearekiko konpromisoa. Baliabideak kirola eta kultura babesteko, elkartasunezko ekintzak gauzatzeko, euskara bultzatzeko eta enplegu eta ekintza-proiektuak (Gaztenpresa) bultzatzeko erabili dira. Gutxi ez balitz, gizarte bidezkoagoa eta jasangarriagoa lortzeko jarduten du, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna eta ingurumen-inpaktu kaltegarriak murrizteko borondatea izan du.

Laboral Kutxako lema nagusia “Bada banka egiteko beste modu bat” dela esan genezake, hain zuzen ere, pentsaera hori darama eguneroko erabakiak hartzeko orduan (Laboral Kutxa, d.g.C). Bezero, pertsona, jasangarritasuna eta ingurumena, gizartea eta tokiko banka hartuko du kontutan ea hauei ahalik eta zerbitzu hobereana emateko etengabe lanean dabil. Etorkizunera begiratzen duen erakunde berritzailea bezala definitzen da, banka egiteko beste modu bat dagoela sinisten duena. Garapen kolektiboarekin konprometitu dagoena, alderdi ekonomikoan zein sozialean.

2018ko abenduaren 31ko datuak kontuan izanik, orduantxe Laboral Kutxak 309 bulego zituen, 1.147.805 bezero, 22.989 milioi aktibo bateratuak, %4,51ko berankortasuna, %73,7ko likidezia ratioa, %7,97ko ROE, 133,66 milioiko mozkin bateratuak, 1.928 pertsona enplegatu, horietako 947 gizon (%49,1) eta 981 emakume (%50,9), orokorrean efizientzia positiboa zuen, konkretuki %56,05koa.

2.2.2.1. Grafikoa: Laboral Kutxaren jabetza

NORENA DA LABORAL KUTXA?



Iturria: Laboral Kutxa (2019a)

Momentu horretan Laboral Kutxaren jabetza horrela zegoen banatuta: erakundearen %47a elkartutako kooperatiben menpe zegoen, %24a lan-bazkideen esku, %18aren gozamina bezero eta pertsona fisikoena zen, eta %11a bazkide laguntzaileena, erretiratuena, alegia.

1.BEZEROAK

2018ko EGEEn adierazi bezala (Laboral Kutxa, 2019a), bezeroen ikuspuntua oso garrantzitsua da, horregatik urtero Laboral Kutxak galdetegi bat egozten du jasangarrtasun ikuspuntutik hauentzako garrantzitsuena zer den jakiteko eta ildo horiei jarraitzeko. Hala nola, bezeroarekiko gestio arduratsua, zerbitzu kalitatearen bikaintasuna (gardentasuna, adeitasuna, erroreak saihestea...), pertsonen gestioa (berdintasuna, soldata mailak), datu pertsonalen segurtasuna babestea, entitatearen kaudimena eta likidezia indartzea eta armagintza, jokia, pornografia eta dirua zuritzearen kontra jardutea izango lirateke bezeroen eskaera nagusiak.

Behin, bezeroen printzipio nagusiak ezagututa, Laboral Kutxak bere lanari ekiten dio. Digitalizazioari esker bezeroekin harreman zuzenak eta azkarrak izaten ditu. Datu pertsonalen segurtasunaren kezka gutxitzeko, "Datu pertsonalak babesteko eskuliburua" onartu zen. Horrez gain Laboral Kutxak produktu arduratsuak eskaintzen dituela berresten du. Bezeroarentzat arreta zerbitzua indartu da, kontsultak, kexak eta erreklamazioak modu argi eta efizienteago batean gestionatzeko. Zerbitzuaren kalitateari dagokionez, merkatuko azterketa independenteen arabera, hirugarren postuan kokatzen da, ING Direct eta Banca March-en atzetik.

2.2.2.2.Taula: Zerbitzu kalitatearen ranking-a

	2018	Bilakaera
ING DIRECT	82,1	-1,5
BANCA MARCH	80,3	0,4
LABORAL KUTXA	78,3	1,1
BANKINTER	76,7	2,0
BBVA	76,5	1,3
CAJAMAR	75,7	-0,6
CAIXABANK	75,4	-0,7
IBERCAJA	75,3	-1,5
SABADELL	74,7	-0,2


Iturria: Laboral kutxa (2019a)

Bestalde, badago Laboral Kutxak konpromisora zuzentzen den inbertsio funts bat, KONPROMISO IF, alegia (Laboral kutxa, d.g.D). Gizartearekiko arduratsuak diren bezeroentzat aukera paregabea da, izan ere funts etiko eta solidarioa da. Inbertsioak aukeratzeko orduan, ingurumenari, gizarteari eta korporazioaren gobernamentu onari lotutako irizpideak hartzen ditu kontuan, horien artean, CO2 emisioei buruzko politikak edo giza-baliabideen kudeaketak. Era berean, baztertu egingo dira armagintzari, tabakogintzari, jokoari, pornografiari eta meatzaritzari lotutako enpresen finantzaketak. Eta bezeroei kobratzen zaien gestio-komisioaren zati handi bat giza garapen handiko sailkapena duten herrialdeetako zor publikoan inbertituko da. Bezeroak aukeratuko du Cáritas, Medicus Mundi edo Mundukide Kooperatibari luzatzen dion bere aportazioa.

2.PERTSONAK

Txosten honen bigarren atala pertsonen zuzenduta dago (Laboral Kutxa, 2019a), pertsona guztiei; langile, bazkide, bezero, lankide, interesatu eta beste edozein pertsonari. Erreparatu dezakegun datu esanguratsua genero berdintasuna da. Erakundeko beste maila batzuetan bezala, Kontseilu Errektorean, gobernu-organo gorenean ere parekotasuna lortu da emakume eta gizonen artean.

2.2.2.2.Grafikoa: Administrazio-organo goreneko banaketa



Iturria: Laboral Kutxa (2019a)

Lanpostu berdinean dauden langileek soldata berdina eskuratzen dute, baina lanpostuaren maila desberdinetan oraindik soldaten arteko desberdintasuna dago, nahiz eta diferentzia hori txikitzen joan.

2018an bertako langileei zuzendutako osasun plan bat jarri zen martxan: Zainduz. Osasuna zaintzeko eta bizi-ohitura osasungarriak sustatzeko programa da. Elikadura, jarduera fisikoa edota laneko osasuna hobetzeko moduak lantzen ditu, Laboral Kutxa Taldea osatzen duten pertsonen osasuna eta ongizate fisiko zein emozionala hobetzeko helburuarekin. Iniziatiba hauek pertsonen ongizatea sustatzen dute eta Laboral Kutxak hauek aurrera eramaten jarraituko du, pertsonengandik gertu sentitu nahi duelako.

3. JASANGARRITASUNA INGURUMENEAN

Erreferentzia berdinari helduz (Laboral Kutxa, 2019a), Laboral Kutxa ingurumena zaintzeaz arduratzen denez, Ingurumena Gestionatzeko Sistemaren aitzindaria izan da finantza sektorean. Sistema horrek ISO 14001: 2015 Arauari jarraitzen dio, eta AENOR erakundeak ziurtatu du. Sistema hau jarraitzearen emaitza atmosferara isurtzen duen CO2 kopurua murriztea da. Honi eutsiz, Laboral Kutxak zaharberritze lanak egin zituen, horrekin batera isolamendu termikoa hobetu zuen eta argi fluoreszenteen ordez LED luminariak jarri zituen, unean uneko argi naturalaren arabera automatikoki egokitzen direnak. Horrela, geotermia eta biomasa uztartzen dituen klimatizazio-sistema mistoa ezarri zuen, bere eraikuntza zentralak girotzeko energia berriztagarriak erabiliz. Egoitza nagusian ingurumen-lorpen handia izan da hau.

2.2.2.3.Taula: Laboral Kutxak isuritako CO2


KARBONO-AZTARNA	2016	2017	2018
1. irismena: isurtze zuzenak (gasolioa eta propanoa)	144	57	25
2. irismena: zeharkako isurtzeak (elektrizitatea)	4.997	4.739	4.529
3. irismena: beste zeharkako isurtze batzuk	794	818	740
Isuritako CO2 tonak guztira	5.935	5.613	5.293

Iturria: Laboral Kutxa (2019a)

Eta hau gutxi ez balitz, bezero zein bazkideen iradokizunak jasotzeko asmoarekin jarraitzen du Laboral Kutxak, beti ere beraien eta ingurumenaren ongizatea bultzatuz.

2.2.2.3. Grafikoa: Egoitza nagusiko ur kontsumoa

EGOITZA NAGUSIKO UR-KONTSUMOA (M3-TAN)




Iturria: Laboral Kutxa (2019a)

Era berean, ur kontsumoa ere gutxitu egin da instalazioen aldakuntzen eraginez.

4. GIZARTEA

Ekonomia eta gizartea, prestakuntza eta enplegua sortzea bultzatu nahi du, eta horregatik Laboral Kutxak gizarteari garrantzi handia ematen diola adierazten du txostenak. Horrela banatzen dira Laboral Kutxako mozkinak: emaitza banagarrietatik %25a gizartera bideratuta dago; horietako %10a Heziketa eta Sustapeneko Fondoetara zuzentzen da (gaztelera FEP, Fondo de Educación y Promoción Cooperativa), konpromisu hau hartzen duten gizarte-ekimenterako da. Beste %15a aldiz, Kooperatiba arteko Fondo Sozialetara (gaztelera FSI, Fondo Social Intercooperativo), hau da, kooperatiba gehiago sortzeko eta daudenak bultzatzeko erabiltzen da, horrela enplegua eta aberastasuna sortuz. Gainontzeko emaitza banagarrien helmuga Erreserbak (%50) eta Kapital Soziala (%25) dira. Azken hau bi zatitan banatzen da, alde batetik %12,5a bazkideen artean banatzen da, ea beste %12,5a Laboral Kutxako bazkide diren gainontzeko kooperatiben artean banatzen da, aberastasuna sortzeko. Horrez gain, Laboral Kutxak ikerkuntza, kultura eta hezkuntza sustatzen dituzten proiektuak bultzatzen ditu, hala nola, Gaztenpresa, Saiolan eta Mondragon Unibertsitatea, besteak beste.

2.2.2.2.Irudia: Irabazien banaketa



Iturria: Laboral Kutxa (2014a)

Gizarteari egindako ekarpenak 2018. urtean honela sailkatzen ziren:

2.2.2.4.Taula: Gizarteari egindako ekarpena

GIZARTEARI EGINDAKO EKARPENA

2018KO EGE

2018an, **21 milioi eurotik** gorakoa izan da gizarteari egindako ekarpena.

Kontzeptua (mila eurokotan)	Mila €-kotan
Enpresa kooperatiboak abian jartzeko eta finkatzeko elkartasunezko ekarpena (MONDRAGONen bidez) – Kooperatiba arteko Fondo Soziala - KFS (emaitza banagarrien % 15)	12.887
Heziketako eta Sustapeneko Fundoa - HSF (emaitza banagarrien % 10)	
Kooperatiba-sustapena MONDRAGONen bidez (HSFaren % 68) eta beste helburu batzuk (Kreditu Kooperatiben Nazio Batasuna...)	5.841
Berregituratze eta Enplegu Sozietariorako Fundoa (BESF)	698
Ekintzailatza eta Enpresa- eta lan-prestakuntza (Gaztenpresa Fundazioa)	311
Kultura-jarduerak, oro har, eta bestelakoak	543
Euskararen eta euskal kulturaren sustapena	321
Laguntza-erakundeak eta garatzeko bidean dauden herrialdeetakoak	373
Nekazaritzako elikagaien sektorea	63
HSF GUZTIRA	8.150
KFS + HSF	21.037

Iturria: Labora Kutxa (2019a)

MONDRAGON Korporazio Kooperatiboa (MCC):

2.2.2.3.Irudia: Mondragon Korporazioaren logoa



Iturria: Mondragon Korporazioa (d.g.A.)

Dakigunez, Laboral Kutxa Mondragon Korporazioaren barruan kokatzen da, negozio-talde hau kooperatiba autonomo eta independenteek osatzen dute. Mondragon Korporazioa kooperatiben munduan talde ezagunenetakoa bat da, eta honen partaide izateak prestigioa ematen dio Laboral Kutxari. Europako enpresa-talde nagusietako bat den arren, Europatik kanpo ere baditu filialak, guztira 41 herrialdetan du presentzia. Horrekin batera, gaur egun, 12.215 milioi euroko sarrera totalak ditu, 264 enpresa eta kooperatiba, 81.837 pertsona eta 15 I+G zentzoren eragile dela azaltzen du (Mondragon Korporazioa, d.g.A.).

Laboral Kutxak, 2018an, bere emaitzen 20 milioi euro baino gehiago bideratu zituen Taldeari laguntzera, lanpostu berriak sortu eta zeudenak finkatzeko. Hona hemen azken urte batzuetako ekarpenak:

2.2.2.5.Taula: Mondragon-i egindako ekarpena

MILA EUROKOTAN	2016	2017	2018
MONDRAGONi guztira egindako ekarpenak	18.438	19.074	20.060

Iturria: Laboral Kutxa (2019a)

Esan beharra dago Laboral Kutxak bere ekimen propio eta jasagarriak izan arren, bere taldeak, Mondragon Korporazioak ere halakoxe proiektu berdeak bultzatzen dituela, (Mondragon Korporazioa, d.g.B.). Alde batetik, Mondragon Eko daukagu, hau ekonomia berdearen sektorean etorkizuneko negozioak sustatzeko plataforma da eta, beraz, korporazioa iraunkortasunaren erreferente gisa kokatzea da. Bestalde, Mondragon Green Community ideia garatzen da, ekonomia berdearen sektorean kezka eta ekimenak partekatzeko interesa duten korporazioko eragile guztien topaketa foroa dena. Foro berria 2013ko otsailean aurkeztu zen, eta "interkooperazioan" jarduera, proiektu eta produktu berriak sortzeko eragile garrantzitsua da. Beraz, horrelako oinarri bat edukita, ez da harrizkoa Laboral Kutxa finantza iraunkor eta jasagarrien munduan murgilduta egotea.

Gaztenpresa fundazioa Laboral Kutxaren gizarte lanean txertatuta dago, hasiera batean irabazi asmorik gabeko mugimendua da (Laboral Kutxa, 2016b). Enpresak eratzearen bidez enplegua sortu eta sendotuko duten ekimenak eta ekintzak sustatzea du helburu. Laboral Kutxak, ekimen honi esker, enpresa-sorrera finantzatzen du; MONDRAGON Korporazioaren, Eusko Jaurlaritzaren (Lanbide) eta Europako Gizarte Funtsaren laguntzarekin. Nahiz eta zertxobait urruti geratzen zaizkigun datu hauek (2013-2016 bitartekoak dira), Gaztenpresak duen indarra eta garrantzia ikusteko baliozkoak izango dira.

2.2.2.6.Taula: Gaztenpresak sortutako enpresa eta lanpostuak

Gaztenpresa	2013	2014	2015
Empresas viables creadas	265	462	402
Puestos de trabajo iniciales	458	771	731

Iturria: Laboral Kutxa (2016b)

Laboral Kutxak Gaztenpresa ekimenaren bitartez urte hauetan sortutako enpresak eta lanpostuen zenbatekoa erakusten du goiko taula honek. Emaizak onak dira, urtez-urte zifra hauek handitzen doazela nabarmentzen da. Bestalde, azpiko taulak ikusi dezakegunez, Bizkaian da Gaztenpresa proiektu gehien garatzen den probintzia (%40), ondoren Gipuzkoa (%24), Araba (%22) eta azkenik Nafarroa (%14). Guztiak batuta, 2015. urtean 402 negozio jarri ziren martxan, horrez gain lanpostu asko ere sortzen ditu inizatiba honek. Baina zifrak ez dira jatsi, izan ere, urtez-urte proiektu gehiago eratzten lagundu du, mikroenpresa eta lanpostu berri gehiago sortuz.

2.2.2.7.Taula: Gaztenpresa probintzian banatuta

Proyectos de Gaztenpresa en 2015	Alava	Bizkaia	Gipuzkoa	Navarra	Total
Viables y abren el negocio	87	162	97	56	402

Iturria: Laboral Kutxa (2016b)

5. TOKIKO BANKA

Ondasun eta zerbitzuak presentzia duen toki berean erosteko konpromisoa azaltzen du (Laboral Kutxa, 2019a). Aipatzekoa da 2018an Laboral Kutxak hornitu zituen ondasun eta zerbitzuen %94,2a tokiko enpresetan erosi zuela. Zifra altua den arren, urte berean hornitzaileen gestio proiektuak garatu ziren emaitza hobeko bat lortzeko asmoz. Enpresaren Gizarte Erantzukizunerako Batzordeak dokumentu hauek onartu zituen momentuan, Laboral Kutxa ere enpresa hornitzaileekin modu etikoan eta iraunkorrean lan egitera konprometitu zen; hala nola, Laboral Kutxaren erosketa arduratsuen politika, hornitzaileen kode etikoa eta erosketa arduratsurako jokabide-kodea sortu ziren.

Enpresaren Gizarte Erantzukizunaren txostenak erakusten du Laboral Kutxaren helburuetako bat etengabeko hobekuntza dela, ingurumen zein gizarte esparruan. Helburu hau lortzeko, banku kooperatibo honek hainbat eta hainbat inizatiba eta ekintza ditu eskuen artean, dagoeneko azaldu bezala. Duen jarrera positiboak Laboral Kutxaren konpromisua eta motibazioa erakusten du, etorkizun hobea bat eraikitzeko benetako ilusioa.

Guzti honekin ondoriozta dezakegu 2018an Laboral kutxaren negozioa bide onetik zihoala, emaitzak onak ziren eta etorkizunean bilakaera berdina edukitzea estimatzen zen (20M EP, 2020). 2019an Laboral Kutxak 137,7 milioiko irabaziekin itxi zuen ekitaldia, aurreko urtetik %3,02ko gehikuntza suposatuz. Entitateak 2019a ziklo ekonomikoan nolabaiteko moteltzea azpimarratu du tasen "depresio luzea" dela eta, hala ere aurreko urteko emaitzak gainditzea lortu du. Erakundeak azpimarratu du irabaziak merkataritza jarduera gogorraren laguntzaz lortu dituela, batez ere hipoteka merkatuan, horren formalizazio berriak %12,9 hazi dira, eta merkataritza arloan ere, non enpresen kreditu inbertsioak %9 igo diren.

Orokorrean Laboral Kutxaren azken urteetako egoera positiboa izan dela ondorioztatu dugu, Laboral Kutxak gaur egun merkatuan duen presentzia baikorra dela azaldu duelako. Entitateko emaitza mesedegarriez gain, ekintza iraunkorrei begira beste indargune batzuk erakusten ditu Laboral Kutxak, izan ere hainbat ekimen eta helburutan hartzen du parte. Horietako bat, Garapen Iraunkorreko Helburuekin hartutako konpromisua da (Laboral kutxa, 2020).

2016an Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako 17 helburu finkatu zituen Laboral Kutxak. Honako helburuak dituen ekimena da: pobrezia desagerraraztea, planeta babestea eta pertsona guztiei bakea eta oparotasuna ahalbidetzea, besteak beste. Errokkarekin bat egiteko xedearekin, Laboral Kutxak NBEren helburuak aztertu, kalifikatu eta entitatearen barruan bakoitzak duen garrantzia finkatu zuen, eta horiek lortzeko ekintza-lerroak erabaki zituen. Honako hauek dira esanguratsuenak:

- Energia garbiei eta energia efizientziari lotutako proiektuak finantzatzeko hitzarmenak lotzen jarraitzea.
- Gizarte-onura dakarten produktu eta zerbitzuak eta inbertsio sozialki arduratsuak bultzatzea.
- Bertako nekazaritzako elikagaien sektorearen aldeko babesa areagotzea eta finantza eta aseguru bazterketa saihesteko ahaleginari eustea.
- Enpresa osasungarriaren kontzeptua jorratzeko lan egitea; era berean, gizartearen finantza- eta aseguru-hezkuntza lantzea.
- Kreditu inbertsioa enpresa sustapenera eta berrikuntzara bideratzea.

Gainera, Laboral Kutxak teknologia berrien erabilera sustatuko du ibilgailuen erabilera gutxitzeko; garraio iraunkorra bultzatuko dugu eta istripuak gutxitzearen alde egin. Izan ere, Iraunkortasunaren aldeko Euskal Enpresen Elkarteko (IZAITEko) partaide da. Irabazi-asmorik gabeko elkarte da eta Garapen Iraunkorarekin eta Gizarte Erantzukizun Korporatiboarekin konprometitutako enpresa pribatuak biltzen ditu.

Garapen Iraunkorreko Helburuez gain, Laboral Kutxa badago beste mugimendu batzuekin lanean, hain zuzen ere, Nazio Batuen Erakundearekin (NBE) hartu dituen oinarriei buruz hitz egingo dugu: “Banku-jarduera Arduratsuaren printzipioak betetzeko eta gure aseguruak modu etikoan eta solidarioan kudeatzeko konpromisoa hartu dugu Laboral Kutxan” (Laboral Kutxa, 2019b).

Finantzaketa egiteko beste modu bat badela uste da Laboral Kutxan, eta ideia hau frogatzeko asmoz hartu zuen konpromisoa Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJE-ekin), planetak gizartearen eta ingurumenaren aldetik dituen erronka handiei erantzuna ematen laguntzeko. “Enpresa jasangarria izan nahi dugu, klima-aldaketaren aurkako borrokan parte hartu eta gure ingurunearen ongizatea lortzeko eragile aktiboak izan”, Laboral Kutxak bere oinarriak argi dituela berresten du. Horregatik egin zuen bat NBEk proposatutako Banku-jarduera Arduratsuaren 6 printzipioekin banku kooperatibo honek.

Parisko Hitzarmenak klima-aldaketaren aurka borrokatzeko mundu osorako estandarra finkatu zuen bezala, Banku-jarduera Arduratsuari buruzko Printzipioek jardueraresparru globala ezarri nahi dute bankuen sektoreko enpresa guztientzat. 2018an hauei buruzko zirriborro bat aurkeztu zen, Nazio Batuen UNEP FI (gaztelaraz PNUMA, Programa de las Naciones Unidas para el Medio Ambiente) finantza-agentziak bultzaturik. Handik urte batera, 2019ko irailean, mundu zabaleko bankuek eta finantza-erakundeek sinatu zuten, tartean Laboral Kutxak, Nazio Batuen Erakundearen egoitzan, New Yorken. Ekimen global horren babeslea da beraz Laboral Kutxa. Helburua printzipio argi eta garden batzuk finkatzea da, banku-erakundeek gizartearekin bat egin eta finantza-krisialdian galdutako konfiantza berreskuratzeko.

Esan bezala, Laboral Kutxa jarraian azalduko diren sei printzipioen sortzaileetako bat da, eta beraz, berak ere erakundearen barruan oinarri hauek aplikatzen ditu. Honi esker, finantza-sektorearen abangoardian dagoela esan daiteke. Izan ere, iraunkortasunari, erantzukizunari eta gardentasunari dagokienez, sektore erakunde nagusien eta banka etiko bezala definitzen diren eragile nagusien maila berean kokatzen da. Hona hemen Banku-jarduera Arduratsuaren 6 printzipioak (Laboral Kutxa, 2019b):

1.-Lerrokatzea: Estrategia komertziala gizabanakoen beharrekin eta gizartearen helburuekin lerrokatuko dira, horiekin koherentea izan dadin eta horiek betetzen lagun dezan, horrela eskatzen baitute garapen jasangarrirako helburuek (GJHek), Klimari buruzko Parisko Hitzarmenak eta nazioko eta nazioarteko erakundeek. Eraginik handiena sortzen duten arloetara bideratuko dira ahaleginak.

2.-Gobernantza eta helburuak finkatzea: Erakundearen sortzen diren eragin positiboak handitzen eta negatiboak txikitzen jarraituko da, eta jarduera, produktu eta zerbitzuen ondorioz pertsonentzat eta ingurumenarentzat sortutako arriskuak kudeatuko dira. Helburu horrekin, inpakturik handienak eragin ditzaketen helburuak finkatu eta argitaratuko dira.

3.-Bezeroak eta kontsumitzaileak: Bezero eta kontsumitzaileekin jardunbide jasangarriak sustatu eta oraingo zein geroko belaunaldientzako aberastasun partekatua ekarriko duten jarduera ekonomikoak ahalbidetu.

4.-Alderdi interesdunak: Alderdi interesdunekin parte hartu eta lankidetzan jardungo da, gizartearen helburuak betetzeko.

5.-Gobernantza eta kultura: Printzipio horiekin hartutako konpromisoak gobernu eraginkorraren eta banku-kultura arduratsuaren bidez beteko dira, anbizioa eta erantzukizuna erakutsiz.

6.-Gardentasuna eta kontuak ematea: Printzipio hauen ezarpen indibidual eta kolektiboan aldi-aldi berrikusiko da, eta gardentasuna eta ardura azalduko da helburuak betetzeko egiten den ekarpenean, eragin positibo zein negatiboak izan gizaratean.

Behin Laboral Kutxak printzipio horiek sinatuta, betebeharrak batzuk izango ditu. Gainerako erakundeek bezala ekintza eta aurrerapen-helburu batzuk finkatuko ditu, eta UNEPek horien bilakaeraren eta hobekuntzen jarraipena egingo du. Bestalde, egindako aurrerapenei buruzko txosten publikoa argitaratu beharko du entitateak, enpresaren erantzukizun sozialeko txostenekin egiten duen bezala.

Bere bizitzako 60 urteotan, Laboral Kutxak hainbat ekimen gauzatu ditu banku-jardueraren arduratsuaren norabidean: berdintasuna, ingurumen-gestioa, enplegua sortzea, gizarteari eginiko ekarpena, soldata-tarteak, etab. Printzipio hauekin bat egitea aukera egokia izan daiteke erakundearen estrategiak barne hartzen dituen ekimen guztien inguruan hausnartzeko eta horien esparru orokor eta egituratua finkatzeko.

Laburbilduz, Laboral Kutxak adierazten duen bezala, entitateak lortutako azken urteetako emaitzak positiboak izan dira, eta beraz, gaur egun bankuen merkatuan maila on baten kokatuta dago.

Gainera, entitate barnean egindako analisiaren arabera erabiltzaileen %80k Laboral Kutxa "ziurtasun osoz gomendatuko lukete" edo "gomendatuko lukete"(Laboral Kutxa, d.g.E). Honek ondorioztatzen du finantza entitate txikia izan arren, dituen bezeroak leialak direla, eta nahiago duela bere bezeroak zaindu eta hauen beharrak asetu, beste banku batzuen gainetik jartzeko ahaleginak egin ordez.

Orain arte Laboral Kutxaren jaiotza, historia eta garapena ezagutu dugu, eta badirudi emaitza positiboak ematen dituen kreditu kooperatiba dela, gizarteko erantzukizunak betetzen dituela, langileak errespetatzen dituela eta bezeroen arreta lehenesten duela. Baina zein iritzi daukate langileak? Goazen enpresari buruzko beste ikuspuntu bat aztertzeraz.

Arizmendiarrietaren ideologia, hasiera batean, garaiko beste enpresa kapitalistez desberdintzeko asmotan zabaldu zen, baina aspaldi honetan, badirudi gainerako bankuen antzeko ezaugarriak jarraitzen dituela. Ordaindu elkartearen iritziz (Ordaindu Elkartea, 2019), Laboral Kutxaren egungo helburu nagusia banku negozioa errentagarri bihurtzea baino ez da.

Ordaindu elkartea kooperatibistek, kooperatibista ohiek eta bazkide laguntzaileek, kolaboratzaileek, oinordekoak, etab. osatzen dute, MCCren aurkako beraien haserrea manifestatzeko batu dira. Alde batetik, Fagor Electrodomésticos-en itxieragatik, negozioa gaizki zioan unean bideragarritasun plan bat abian jarri ordez, 2000 kooperatibista lanik gabe uztea erabaki zen. “Negocio no rentable se cierra y punto, sin ni siquiera intentar un plan de viabilidad realista y posible”. Gainera kooperatibako kapitala kolektiboa izanik, ordurarte lortutako aurrezkiak banatzeko betebeharra zegoen, hori ere ez zen bete.

Jarrera egoista hau kritikatzeko dute Ordaindu Elkarteko kideek. MCC-k zein Laboral Kutxak enpresako kooperatibismoa eta batasuna bultzatzen dutela diote, baina errealitatean beste jarrera bat ikusi da, non kooperatibismoa kolokan jartzen den. Horregatik kooperatibismo erreal, justu eta solidario baten alde borrokan ari dira.

2.2.3. Laboral Kutxaren oinarriak

Aurreko atalean ikusitako desadostasunez aparte, Laboral kutxak berez dituen printzipioak jarraitzen ditu. Esan behar da printzipio hauek aurkitzea ez dela gauza erraza izan, Finantza Etikoek beraien ezaugarri karakteristikoenak atal batean biltzen dituzten bezala, kooperatiba honek ez dituelako bere oinarriak zerrenda baten batzen, informazioa sakabanatuta dago.

Laboral Kutxa ez da Banku Etiko bat, baina hura balitz bezala funtzionatzen duela adierazten du. Hau argitzeko lehenengo Laboral Kutxaren printzipioak ezagutuko ditugu, eta horretarako Banku Etikoko ezaugarriak hartu ditugu eta kreditu kooperatiba honen ikuspuntua azaldu dugu banan-banan atal bakoitzean. Ondoren Banku etikoko ezaugarriekin alderatzeko eta ondorioak ateratzeko. Ondorengo argibidea eskuratu da informazioa pilatuz.

KREDITU KOOPERATIBOA: Esan bezala, nahiz eta banku tradizional bezala kalifikatuta egon, Laboral Kutxa ez dago banku transnazional handien maila berdinean, ez baititu hauek dituzten helburu berak. Horren arrazoi bat izan daiteke kreditu kooperatiba bat izatea, langileak bazkideak izatearen abantailarekin jokatzeko, bazkideak dira enpresaren jabeak. Beraz, langileak enpresaren parte sentituko dira eta konfiantza puntu bat eskuratu dute. Enpresako emaitzak ere bazkideen artean banatuko direnez, langileen inplikazio maila handitu egingo da eta beraz, lan efizienteagoa egingo dute (Laboral Kutxa, 2014a).

FINANTZATUTAKO ENPRESA MOTAK: Ez da zehatz mehatz azaltzen zein ezaugarri bete behar dituzten proiektuek finantzatutako izateko. Egia da erakundearen barnean fondo ezberdinak ezagutzen direla, eta bakoitzean irizpide desberdin batzuk jarraitzen dituztela. Baina ez gaitzezen nahastu, gauza bat da Laboral Kutxak zein enpresari uzten

dion dirua mailegutan eta beste gauza bat fondoetako dirua zein enpresetara bideratzen den. Gauza desberdinak dira, eta beraz, ez dira alderagarriak. Hala ere, Laboral Kutxak ez ditu pentsaera orokor eta berdin batzuk jarraitzen enpresetan inbertitzaerako orduan.

INBERTITUTAKO JARDUERA MOTAK: Laboral Kutxak ez du zehazten zer jardueratan inbertituko duen. Aurreko puntuan esan bezala; finantzatzen dituen enpresen ezaugarriak ematen ez dituen bezala, finantzatuko dituen jardueren informazioa ere ez du eskaintzen edo behintzat informazio hori ez da publikoa.

PARTE HARTZEA: Esan bezala, Laboral Kutxa kreditu kooperatiba bat da, horrek egitura demokratikoa duela suposatzen du (Laboral Kutxa, 2014b). Erabakiak hartzeko eskubidea eta betebeharra dute bazkideek, bakoitzak egindako ekarpena kontuan hartu gabe. “Bazkide bat boto bat” arauak lehenesten duela dio. Beraz, parte hartze kooperatiboa praktikatzeko da antolaketari dagokionez.

GARDENTASUNA: Bezeroei zerbitzu gardena ematen zaie, baina ez dio erreferentziarik egiten Laboral Kutxak finantzatuko dituen proiektuen informazioa azaltzeari, (Laboral Kutxa, 2017). Kooperatiba honek gardentasunari buruz hitz egiten duenean bezeroei informazioa era garbi eta ulergarri batean eman behar zaiela diote, gardentasun osoz. Hala nola, bezeroarekiko gestio arduratsua izatea, zerbitzu kalitatearen bikaintasuna eskaintzea, pertsonen gestioa zaintzea, berdintasunez jokatzeko eta datu pertsonalen segurtasuna babesteari konpromisoa hartzen du.

KULTURA ETIKOA: Esparru konkretu batzuetan soilik aplikatzen du; genero berdintasuna bultzatuz, instalazio zentralerako kutsadura murriztuz, etab. Laboral Kutxa ekimen etiko batzuen sustatzailea izan da, hala nola, erakundeetan sortzen diren eragin positiboak handitu eta negatiboak txikitzen saiatuko da eta produktu eta zerbitzuen ondorioz pertsonentzat eta ingurumenarentzat sortutako arriskuak kudeatuko dira. Ongizatea bultzatu nahi duen arren, badirudi ez dela enpresaren helburu nagusia.

“NIRE DIRUAREKIN EZ” ANTZEKO PREMISA: Ez du honen antzeko premisarik aipatzen, proiektu bat finantzatzaerako orduan jarraitzen dituen kriterioak azaltzen ez dituen bezalaxe. Beraz, beste informaziorik izan ezean horrela mantenduko dugu atal hau.

Ikusi bezala, atal batzuetan Laboral Kutxak Banku Etikoekin ba dator, baina beste batzuetan ez du haren aipamenik egiten. Bi banku mota hauen alderaketa sakontzeko ondorengo puntura pasatuko gara.

2.3. LABORAL KUTXAREN ETA BANKU ETIKOAREN OINARRIEN ALDERAKETA

Hau da, zalantzarik gabe, Gradu Amaierako Lan honetako kapitulu garrantzitsua, nahiz eta aurreko atal guztiak beharrezkoak eta funtsezkoak izan diren puntu hau prestatzeko eta jorrazteko. Aldi berean, honen ostean jarraitzen duten atalak ere ezinbestekoak izango dira GRAL-a osatzeko. Puntu honetan Laboral Kutxa Banka Etiko batekin alderatuko dugu, hauen eredia eta oinarriak aurrez-aurre jarritz. Ez dugu eredu zehatz bat hartuko, izan ere, banku etiko guztien printzipioak berdinak dira eta ondo finkatuta daude.

Lehenengo zatian Finantza Etikoen oinarriak azaldu ditugu eta ondoren Laboral Kutxaren oinarriak. Beraz, informazio horretaz baliatuko gara bi banku mota hauen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak aztertzeko (FETS, d.g.). Laboral Kutxa ez da banku etikoen zerrendan agertzen, beraz ofizialki ez da banku etikoa kontsideratzen irizpide etikoekin lan egiten duen arren. Erakundeak banku etikoaren eredu ohikoenetako bati erantzuten dio, banka kooperatiboari edo herritarrei, alegia. Kooperatiba kreditu honen ezaugarriak berrikusiz gero, banku etikoaren definizioarekin antzekotasunak dituela ikusiko da.

KULTURA MOTA: Banku motaren arabera, esan beharra dago Banku Etiko gehienak kooperatibak direla eta ezaugarri hau garrantzitsua da. Era berean, Laboral Kutxa ere kreditu kooperatiba bat da, beraz, bat egiten dute ideia honetan, biek baitute antolaketa demokratiko berbera. Erakunde politikoekiko menpekotasunik ez duen Kontseilu Errektore batek zuzentzen du Batzar Nagusia, non laneko bazkideek maila goreneko erabakietan parte hartzen eta bozkatzen duten, parlamentu bat balitz bezala. Beraz, bai Laboral Kutxak eta bai Banku Etikoak bat datoz oinarri honekin.

FINANTZATUTAKO ENPRESA MOTAK: Banku Etikoek argi dute zein enpresetan inbertituko duten; gizartearen eta ingurumenaren hobekuntza sustatzen duten enpresetan soilik. Proiektu iraunkor eta jasangarriak finantzatuko dituzte, hau da, ekonomia sozial, solidario eta erreala bultzatuko dute. Laboral Kutxa, bere aldetik ez du horrelako informaziorik zehazten bere oinarrien barruan. Egia da ekonomia errealean inbertituko duela, baina ez da horretara mugatzen.

INBERTITUTAKO JARDUERA MOTAK: Finantza Etikoetan ez dira inondik ere jarduera espekulatiboak ageri, ekonomia errealean eta ekonomia solidarioan inbertituko dute. Gainera, aurretik ikusi bezala, finantza etikoek zerrenda garbi bat azaltzen dute onartuko eta baztertuko dituzten jarduerak argi utziz. Laboral Kutxari dagokionez, bere web orrian ez du azalpenik ematen arlo honetan, beraz, suposatuko dugu informazio hau ez dagoela eskuragai. Beraz, puntu honetan desadostasunik ez egon arren, bi banku mota hauek ez dute informazio bera eskaintzen.

PARTE HARTZEA: oinarri hau partekatu egiten dute, hau da, bai Banku Etikoek eta bai Laboral Kutxak, kooperatiba baten izenpean lan egiten dutenez, bazkide guztiek dute erabakiak hartzeko eskubidea eta betebeharra. Ez dira kontutan hartzen bakoitzak egindako ekarpena, bazkide bat boto bat. Bazkideek, bozkatzeaz gain, entitatearen oinarrizko politikei buruzko erabakiak hartuko dituzte eta irabaziak ere guztien artean banatuko dira. Kasu honetan, Banku Etikoak eta Laboral Kutxa bat datoz parte hartzearen oinarriarekin.

GARDENTASUNA: gardentasuna modu desberdinean ulertzen dute. Banku Etikoen printzipioen barruan gardentasuna da garrantzitsuena, eta hauentzat gardenak izatea bezeroei gordailuetako dirua zein proiektuetara zuzentzen den esatean datza. Beren bezeroei aurrezkien informazio guztia eskaintzean datza. Aldiz, Laboral Kutxak “gardentasuna” beste era batean definitzen du, bezeroei zerbitzu gardenak ematea, hau da, bezeroei informazioa era garbian emititzea. Honek ez du esan nahi Laboral Kutxa ez denik gardenak, gardenak izango da aspektu batzuetan eta beste batzuetan ez. Beraz, Banku Etikoak guztiz gardenak diren bitartean, Laboral Kutxa gardenak da baina muga bateraino.

KULTURA ETIKOA: Finantza Etikoek kultura etikoaren beraien entitateko filosofia bezala hartzen dute, kultura etikoaren erakunde osoan zehar aplikatzen dute, bai kredituak ematerako orduan baina baita bizi estilo moduan ere. Laboral Kutxak ekimen etiko batzuen sustatzailea den arren eta finantza etikoek bultzatutako hainbat ekintzetan parte hartzen duen arren, enpresaren helburu nagusia ez da etikoaren izatea. Laboral Kutxan arlo batzuetan soilik aplikatzen da jarrera hau. Hortaz, bi banku mota hauek jarraitzen duten kultura etikoaren oinarria, baina maila desberdinean.

NIRE DIRUAREKIN: Armagintza sektorea, espekulazioak, kutsadura jarduerak, eta antzeko bestelako proiektuetan inbertitzea debekatuta dago Banku Etiko batean, beraien ideien guztiz kontrako jarduerak baitira. Hau da, banku etiko batek ezin du jarduerak edo sektore konkretu batzuetan inbertitu. Bestalde, Laboral Kutxako irizpideetan ez da horrelako premisarik azaltzen, zenbait jardueratan inbertitzeari uztea erabaki arren, ez du inolako debekurik, barne erabakiengatik izan da.

2.3.1.Taula: Banku Etiko eta Laboral Kutxaren oinarrien alderaketa

EZAUGARRIAK	BANKU ETIKOA (finantza etikoetan oinarrituz)	LABORAL KUTXA
Banku mota	Gehienetan kooperatibak.	Banku kooperatiba.
Finantzatzen dituen enpresa motak	Gizartea, kultura eta ingurumena sustatzen duten enpresak bakarrik.	Ez du azaltzen espresuki.
Finantzatzen dituen jarduera motak	Ez du jarduera espekulatiboan inbertitzen, ekonomia errealean eta solidarioan soilik.	Ez du zehazten.
Parte hartzea	Bazkide guztiek, bazkide bat boto bat.	Bazkide guztiek, bazkide bat boto bat.
Gardentasuna	Bezeroei gordailuetako dirua zein proiektuetara zuzentzen den esaten zaie.	Beste era batera ulertzen du, bezeroei informazioa era garbi eta ulergarri batean ematea.
Kultura Etikoa	Kredituak ematerakoan, inbertsioen aplikazioan eta entitatearen prozesu guztian zehar aplikatzen du.	Esparru konkretu batzuetan soilik aplikatzen du (genero berdintasuna bultzatuz, instalazio zentralako kutsadura murriztuz)
"Nire diruarekin ez"	Ez du armagintzan, espekulazioan eta kutsatzen duten jardueretan dirurik jartzen.	Ez du gai hau sakontzen.

Iturria: Geuk egina (2020)

Laboral Kutxak Banku Etikorantz hurbiltzen dela esateko beste ezaugarri hauek erabiltzen ditu, (Laboral Kutxa, 2017). Baina errealitatean, ikusi dugunez, printzipio hauek ez dira benetan banku etiko bat banku etiko egiten dituztenak:

- **Irabaziak** modu solidarioan eta arduratsuan banatzen dira, % 75a erakundearen bertan geratzen da, %15a kooperatiba berrien sorkuntzan eta lehendik zeuden kooperatibak bultzatzeko erabiltzen da, eta %10a gizarte-ekimenetara bideratzen da.
- **Giza eskubideekiko** konpromisoa sendoa da. "Emakunderen Lankidetzaren Erakundearen" ziurtagiria lortu zuen lehen enpresa izan zen, honek erakusten du genero-berdintasuna sustatzeko xedea duela erakundeak.

- Jasotakoa **gizarteari itzultzea**: enplegua eta aberastasuna sortzea da lehenetasuna. Besteak beste, hirugarren sektoreko enpresei eta pertsona ekintzaileei kreditua errazteko konpromisoa du. Horregatik, dagoeneko ezagunak ditugun Gaztenpresa gisako erremintak ditu; fundazioa sortu zenetik, 4.400 enpresa baino gehiago eta ia 8.000 lanpostu sortzen lagundu du. Gainera, inguruko kirol, kultura edo ikerketa arloetako proiektuetan inbertitzen du Laboral Kutxak, dirua pertsonen zerbitzura jartzeko.
- Laboral Kutxaren eraikuntzari dagokionez, zehazki egoitza zentratean, instalazioen aldaketa bat egon da, **gutxiago kutsatzeko** asmoarekin.

Faktore hauek bete arren, esan bezala, Laboral Kutxa ez da banku etikoen zerrendetan agertzen, funtzionamendu eta irizpide etiko batzuk aplikatu arren, merkataritza-banku unibertsal bat delako. Aipatutako ekintza positibo eta berritzaileen jarraitzaile dela erakutsi nahi du (Laboral Kutxa, 2017), gizarteak ikusi dezan Laboral Kutxak ingurumenarekin eta pertsonekin hartutako konpromisuak. Baina errealitatean horrek ez du Banku Etiko baten bihurtzen, ez dituelako ekimen positibo horiek jarraitzen mailegu bat uzterako orduan. Somatu daiteke hitzekin jolasten dela, hau da, finantza etikoak definitzen dituzten hitzak erabiltzen dira Laboral Kutxa definitzeko, baina hitz hauei beste ikuspuntu bat aplikatzen zaie entitate barruan. Ekonomia sozialeko eta solidarioko enpresekin eta kooperatibekin lan egiten du, baina baita konbentzionalagoak diren beste sektore ekonomiko batzuekin ere, eta etiko gisa bakarrik sailkatutako bankuak ez dira horiengana iristen. Horregatik, balio etikoak dituen merkataritza-banku baten gisa definitzen da erakundea.

Bildutako informazioaz baliatuta, esan daiteke Laboral Kutxa banku tradizionala izanik banku etikoen atal batzuk biltzen dituela, beraz, kreditu kooperatiba hau muturreko bi sistema hauen erdian kokatuko genuke orain arteko argibideen arabera.



Legez, Banku Etikoa ez den arren, hura izatera hurbiltzen diren ezaugarri batzuk ditu. Baina gustatuko ahal litzaieke bertako langileei beraien enpresa Banku Etiko bilakatzea? Komeni zaio Laboral Kutxari esfortzu bat egitea eta Banku Etiko bilakatzea? Bezeroek baloratuko lukete sakrifizio eta emaitzak, ados egongo lirateke? Goazen ba galdera hauei erantzun errealistago bat topatzera.

3.LANDA AZTERKETA

3.1. LANDA AZTERKETAREN AZALPENA

Gradu Amaierako Lan honen azken zatia ikerketa propioa izango da, Landa Azterketa, eta berau burutzeko erabiliko dugun metodologia elkarrizketa kualitatiboak izango dira. Horrela, prestatutako galdera sorta bat luzatuko diegu gure elkarrizketatuei, bakoitzaren erakundeari egokitutako galderak batuz, aztertu nahi ditugun gaiari buruzko esparrua hobeto ezagutzeko. Lan honen helburua Laboral Kutxaren eta Banku Etikoen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak ezagutzea denez, landa azterketa honen xedea alderaketa horretan sakontzea izango da, era berean marko teorikoaren osagarri bihurtuz. Banka etikoaren eta banku kooperatiboaren gaietan murgilduta dauden bi aditu elkarrizketatuko ditugu, horrela beraien iritzia sakonago aztertzeko asmoz. Alde batetik Laboral Kutxako Zuzendari Orokor ohi batengana zuzenduko gara, Julio Gallastegui, inork baino hobeto ezagutzen baitu banku kooperatiba hau, beraz, bere iritzia kualifikatua izango da. Bestalde, Beñat Irasuegi elkarrizketatuko dugu, Gipuzkoako Fiareko partaidea dena.

Julio Gallastegui, gaur egun, erretiratura dago, baina ia bere bizitza profesional guztia Laboral Kutxan eman du (1981-2019). Kargu desberdin askotatik pasatu da, beraz ikuspegi zabala du eta entitate osotasunean ezagutzen du. Laboral Kutxako Zuzendari Orokorra izatera ere heldu zen, hau izan da bere kargu esanguratsu eta gorena. Gainera Fiare-rekin kontaktua mantendu duela adierazi du, izan ere akordio eta lankidetzaren partekatu dute.

Beñat Irasuegi Fiaren Banca Ética-ko boluntarioa da, zehazki Gipuzkoako GITeko (Grupos de Iniciativa Territorial) kidea da. Duela ia 14 urte bildu zen esperientzia honetara, 2008ko krisia gertatu baino lehen eta ordutik beraiekin elkarlanean ari da, gainera Fiareko bezeroa ere bada. Fiare erakundearen gain zentratu bagara ere, aipatzekoa da Irasuegi Coop57-ko bazkidea ere badela. Bere esperientzia hedatsuari esker, finantza etikoen ikuspegi zabala eta jakituna azaltzen du.

Bi aditu hauek asko dute erakusteko, ikuspuntu desberdinak eskainiko dizkie ikerketari eta oso aberasgarriak izango dira ondorioak ateratzeko orduan.

3.2. LABORAL KUTXA ETA BANKA ETIKOAREN ARTEKO ALDERAKETAK

3.2.1. Sorrera eta gaur egun

Laboral Kutxa sortu zenean, orduko Euskadiko Kutxa, arrakasta handia izan zuen aurrezkiak erakartzen, jende asko bildu zen banku kooperatiba honetara, kontatzen du Gallastegui. Garai hartan, Euskadiko Kutxak, inbertsioari baino aurrezkiak erakartzeari ematen zion garrantzi gehiago. Izan ere, bere helburu nagusi eta bakarra kooperatibei kreditua ematea zen, beraz, horrelako ekintzetan inbertitzen zuen Euskadiko Kutxak aurrezkietatik eskuratutako diru guztia.

Baina finantzatuak ziren kooperatiba hauek handitzen joan ziren eta tamaina handiko enpresa hauentzat banku dibertsifikazioa ezinbestekoa eta derrigorrezkoa zela berresten du Gallastegui. Hau da, enpresa batek banku bat baino gehiago izan behar zituen, hornitzaile desberdinak, bere dirua banatuta izateko. Beraz, Euskadiko Kutxak, egoera honi eutsiz, legalki eta bezeroen beharrak alde batera utzi gabe, aurrezkiak modu irekiago batean bideratzea kontsideratu zuen. Euskadiko Kutxak helmugarik gabeko aurrezki asko zituen bere gain, eta horiei irtenbidea emateko bezero partikularrei zerbitzuak ematen hasi zen. Baina aurrezkiak beraien kooperatibei eta bazkide-bezeroei zuzentzen ziren soilik.

Nahiz eta eskaintza zabalagoa eman, oraindik ere Euskadiko Kutxak eskaintzen zuen baino askoz aurrezki gehiago zeukan, beraz, soberan zuen dirua enpresa ez kooperatiboak finantzatzeko erabiltzea erabaki zuen. Horrela, bankuen arteko merkatuan diru gutxiago izateko eta aurrezkiak inbertsiora bideratzeko.

Bestalde, Beñat Irasuegik, aldiz, 2008an hasitako krisiak finantza etikoei bultzada handia eman ziela azaltzen du, jende askok finantzekiko ikuspegi kritikoa garatu zuen. Krisiaren aurretik kutxa publikoen pribatizazioa gertatzen ari zen, ondoren, krisi garaian gauzatu zena.

“Garai hartan, diru pixka bat bazenu normalena etxebizitzan inbertitzea zen” dio Irasuegik, horrela bigarren etxebizitza erosiz gerora garestiago saltzeko, espekulazioa da hori. Finantza munduan lan egiten zuten banku guztiek hartzen zuten parte jarduera horretan eta herritarrak nazkatuta zeuden egoerarekin. Bilbo inguruan sortu zen Fiareren ideia, batez ere GKEek bultzatuta. Ideia hau Gipuzkoara zabaldu zenean, GKEez gain beste perfil batzuetako jendea bildu zen, mundu hau ez zegoelako hain antolatuta, eta orduan bilakatu zen Beñat Irasuegi Fiareko boluntario.

Hasiera batean, Fiareren helburua kriterio etikoekin Euskal Herrian kreditu kooperatiba bat sortzea zen, 2006 urte aldera. Baina krisiaren ondorioz Espainiako Bankuak edozein bankuk bere jarduera egiteko kriterio subjektibo batzuk bete behar zituela adierazi zuela azaltzen du Irasuegik. Horietako bat banku esperientziaren beharra zen, hau da, banku bat ezin zen hutsetik hasi, beraz, sarea zabaltzeko apustua egin zuen Fiarek eta estatuko beste hainbat talderekin batzera animatu zen, indar gehiago biltzeko asmoz. Gerora, Italiako Banca Popolare Etica-rekin elkarlana egiteko adostu zen eta lehenengo sukurtsala zabaldu zen Euskal Herrian. Hau banku kooperatiboa zen Italian, beraz bazuten Espainiako Gobernuak eskatzen zuen banku esperientzia. Krisiak aurrera egin zuen eta kriterio oraindik zorrotzagoak ezarri ziren. Espainian ezingo ziren banku gehiago sortu, dagoeneko existitzen ziren bankuak bultzatu beharko ziren. Egoera honi

aurre egiteko Espainia eta Italiako erakundeak batu egin ziren eta Fiare Banca Éticaren sortu zen 2014ean. Horrela Espainiako bankuak ezingo zion karta bankarioa ukatu Fiareri, European banku jarduera egiten zuen Banca Popolare Etica-rekin batuta baitzegoen.

3.2.2. Alderaketa orokorra

Gallasateguiaren ustetan, ez da egokia Banku Etikoko proiektu bat Banku Kooperatiboko esperientzia batekin alderatzea, Laboral Kutxaren kasua den bezala. Bi banku mota hauek plano ezberdinak baina osagarriak jarraitzen dituzte, baina ez da inoiz beraien arteko lehia ezagutu. Alderantziz, Laboral Kutxa Banku Etikoarekin kolaboratzailea da, elkarlanean aritu izan dira, esaterako, Laboral Kutxak Fiare-rekin hitzarmenak sinatu ditu. Beraz, eremu desberdinean lehiatzen dutenez ez da konkurrentziarik piztu. Helburu desberdinak dituztenez ez dira bateragarriak, nahiz eta hainbat kasutan Laboral Kutxak oinarri etikoak kontuan hartzen dituen. Gallastegui banku etikoen lan duina goraipatzen du, batez ere esanetik ekinera pasatzen direlako, lan handia dela aitortzen du.

Laboral Kutxa eta Banku Etikoak bateragarriak ez izan arren, Laboral Kutxak hauengandik ikasi eta beraien baloreak txertatzen ditu, elkarlanean aritzeko keinu bezala. Izatez, dagoeneko banku kooperatiba honek printzipio etikoen kontzientzia areagotzea bultzatuko du entitatearen eraldaketan, beti ere Mondragón Korporazioko balio tradizionalak alde batera utzi gabe.

Aldiz, irasuegi datu zehatzagotara zuzentzen da, oinarri konkretuak aztertuz. Haren ustez, Laboral Kutxaren eta Fiareren arteko berdintasun nabarmenena izaera juridikoan dago, bi erakundeak kooperatiboak baitira. Orokorrean, hauen sorrerak ere zerikusia izan du beraien antzekotasunean, esan bezala, momentu berdinean sortu zirelako. Baina badituzte desberdintasun batzuk, gardentasunaren gaian eta gobernatzeko eran, adibidez. Aldagai hauek sakonago aztertuko ditugu.

3.2.3. Kultura mota

Lehenik eta behin, gogoratu behar da Banku Etiko gehienak kooperatibak direla, eta halaxe da Fiareren kasuan ere. Laboral Kutxak eta Fiarek izaera kooperatiboa dute, hau da, juridikoki biak berdinean antolatzen dira. Baina, nahiz eta forma juridiko berdina izan, badaude elkarrengandik desberdintzen dituzten zenbait ezaugarri.

Laboral Kutxaren sorrera Euskal Herrian egin den gauza onenetako bat dela aitortzen du Beñat Irasuegik, banka kooperatiba prestu hau poliki-poliki banka komertzialaren olatu berdinean sartu den arte.

Laboral Kutxa enpresa kooperatibistak bultzatzeko sortu zen bankua izan zen, baina momentu batean tresna kooperatibo hori izateari uzten zion, jarraitzen du kontatzen irasuegik. Nahiz eta Mondragon Taldearen parte izaten jarraitu, bere negozioa helburu kooperatiboetatik disoziatzen saiatu dela dio. Hau da, bere helburua ahalik eta etekin handiena lortzea denez inbertsio errentagarrietara jotzen du, Espainiar estatuko beste banku sistematikoen legez, eskala txikiagoan ematen bada ere. Laburbilduz, nahiz eta Laboral Kutxa banku kooperatiboa izan eta Mondragon Taldeko beste enpresa

kooperatiboen finantza iturri izan, Irasuegiren ustez, kanpora begira Laboral Kutxak ez du jarrera kooperatibista eskaintzen, ez baitu bereziki ekonomia soziala sustatzen.

Horrez gai, esan beharra dago enpresa kooperatiba hauen hainbat helburu bat datozela, autonomia finantzarioa, esaterako. Irasuegik, Laboral Kutxaren kasuan, autonomia finantzarioa Mondragon Korporazioko enpresekin lotzen du, Fiareren kasuan, aldiz, ekonomia sozialarekin eta beste ekonomia bat nahi duten herritarrekin. Biek bilatzen dute finantzak ez egotea beste norbaiten esku, beraz, alde horretatik helburu berdina dute, eta esparru horretan elkarlanerako aukera dagoela dio Irasuegi jaunak.

3.2.4. Finantzatutako enpresa motak

Proiektu handiak finantzatzerako orduan, Laboral Kutxak proiektuak aukeratzeko irizpide ezberdinak erabiltzen dituela adierazten du Julio Gallasteguik. Ohiko arriskuez gain beste irizpide batzuk ere kontuan hartuz, ingurugirokoak, esaterako. Etorkizunean proiektuak finantzatzerako orduan irizpide etikoek geroz eta indar handiagoa izango dutela kontsideratzen du banku kooperatibako adituak, "Considero que los criterios éticos son un campo que en un próximo futuro irán incrementando su peso en la decisión".

Fiareren kasuan, finantzatuko den enpresa aukeratzekoan marko juridiko bat existitzen dela azaltzen digu Beñat Irasuegik, non kreditua eskuratu nahi duten enpresek bete beharko dituzten baldintzak azaltzen diren. Kasu hontan ez dago forma juridikoaren muga ezartzen duen beste legislaziorik, hau da, posible da Fiarek kooperatiba izaera ez duen beste enpresa bat finantzatzea, beti ere marko juridikoko baldintzak betetzen baditu. Izan ere, Coop57-k enpresa kooperatibak finantzatzen ditu soilik. Coop57-k garrantzia ematen dio finantzatuko duen enpresaren forma juridikoari, hau ez da Fiareren kasua, baina izaera kooperatiboa edota elkartean jarduera ekonomikoa ekoizten dituzten enpresak hobesten ditu. Forma juridikoari begiratzeaz gain, enpresaren jarduera ere kontuan hartzen du kriterioak aplikatzerako orduan Fiarek, proiektuari azterketa etiko bat egiten zaiola berresten du Irasuegik. Finantzatuko den enpresa juridikoki zer den eta nola antolatzen den garrantzitsua da Fiarerentzat. Enpresa bezala barruan, demokratikoa den, gardentasuna erakusten duen, langileen eskubideak bermatzen dituen, soldatapeko berdintasuna, emakume eta gizonen arteko berdintasun sustatzen duen, etab. "Balore hauek ekonomia sozialaren parte diren arren, Fiarek beti aztertzen du enpresaren aktibitatea", dio Irasuegik.

Gainera, Beñat Irasuegik Fiareren enpresa aukeraketaren adibide bat eskaini digu. Fiarek, hasiera batean, energia berriztagarrien proiektu bat finantzatuko luke, izan ere jarduera honek ingurumenean eragin positiboak ekartzen baititu. Baina alde aurretik, energia berriztagarrien proiektu hori proposatzen duen enpresa aztertuko du Fiarek, kooperatiba edo SA bat den, izaera juridikoari begiratuko dio. Ondoren enpresaren helburuei ere erreparatuko dio. Iberdrolari, esaterako, ez lioke kreditua emango, bere helburua ahalik eta diru gehien irabaztea delako. Duela urte batzuk Espainian oso modan jarri zen "Huertas Solares"-ak ezartzea, hau da, lur eremu batean plaka solarrak jartzea eguzkiaren izpiak aprobetxatzeko. Fiarek horrelako proiektuak ez finantzatzea erabaki zuen, nahiz eta kooperatiba bat izan (gustuko izaera) eta proiektu iraunkor bat proposatu, alde negatibo bat zekarren, espekulazioa somatzen zen. Plaka solar horiek jartzean nekazaritzako jardueratako lurrak jarduera espekulatiboetarako erabiltzen

zituzten, Fiarenen ustetan hori ez da lurraren erabilera ona, agroekologiari kaltea eragiten diolako. Beraz, hasiera batean iraunkorra zirudien proiektua ezeztatu zen, azterketa etikoa gauzatu ondoren beraien pentsamenduekin bat ez baitzeturren.

Ikusi daitekeen bezala, kriterio asko subjektiboak dira, eta horregatik behar da komite etiko bat horrelako erabakiak hartzeko. Irasuegik horrela bukatzen du “ezin da taula simple batekin erabaki hau bai eta hau ez, proiektu bakoitzak bere balorazio etikoa behar du”.

3.2.5. Inbertitutako Jarduera motak, espekulazioak

Espekulazioa, Laboral Kutxarentzat, garapenaren aldeko apustua egiten duen edozein enpresarentzat bezalaxe, merkatuan oinarritzko erreferentzia dela dio Julio Gallastegui. Kontatzen duenez, Laboral Kutxaren garapenean, aurrezkien hazkundera eman zenean, inbertsioen helmuga ugaritzea (aniztea) eta zabaltzea kontsideratu zen. Hasiera batean enpresa kooperatiboei zuzentzen zen banku kooperatibo honek, orain etxeko ekonomiari eta enpresa ez kooperatiboei ere luzatuko zien maileguak, merkatuan ateak zabalduz. Beti ere kooperatiben beharrak baztertu gabe eta gizartearen bilakaerara eta esparru arautzailera egokituz. Izan ere, lehia funtsezko faktorea da enpresak aurrera jarraitzeko, berriro ere, enpresa gabe ez dago kooperatibarik.

Bestalde, Beñat Irasuegik, Fiarek inondik ere ez duela espekulazioan inbertitzen adierazten du. “Azken finean, espekulatzean dirua merkantzia bihurtzen duzu, diruarekin diru gehiago lortzeko asmotan” jarraitzen du. Espekulazio prozesu bat dagoela ulertzen bada, ez da hortan inbertituko, Fiarek ez duelako finantzatzen etikoak ez diren proiektuak. Askotan zalantzak sortzen dira, marra oso fina da eta kontrola eramatea ez da erraza, ondo ezagutu behar da proiektua. Horretarako, Fiarek kontrol mekanismo zorrotzak ditu, baina askotan lurraldeko ezagutzara jotzen du. Hau da, bazkide eta boluntarioei haien eskualdeko enpresei buruzko feedback bat eskatzen zaie, horrela beraien iritzia kontuan hartzeko. Elkarlan horretan hartzen du parte Irasuegi jaunak.

Azkenik, gogoeta txiki bat luzatu digu Irasuegik: haren iritzi Laboral Kutxako Gaztenpresak ekintza espekulatiboak sustatzen ditu, StartUp-ak. Zentzugabea iruditzen zaio Euskal Herrian enpresa berriak sortzeko eredu bezala mekanismo hori erabiltzea. Izan ere, honen helburua enpresa berriak sortzea da, ideia teknologiko bat garatu eta enpresa handiago bati garestiago saltzea. Ez du etikoa ikusten enpresa eredu hori sustatzea

3.2.6. Parte Hartzea

Juridikoki bai Laboral Kutxa eta bai Fiare berdinak dira, biak kooperatibak direlako, baina funtzionamendu desberdina dutela esatera ausartzen da Irasuegi. Biak formalki demokratikoak dira gobernantzan, baina Fiarek baditu erabakitze prozesua deszentralizatzen dituen mekanismoak, ahalik eta bazkide eta langile gehienek parte hartu dezaten erabaki horietan. Aldiz, Laboral Kutxa demokratikoa neurri batean dela dio, bazkideez osatutako batzar batek kontrolatzen duen arren botere hori ez dagoelako zabaldia.

Gainera, irasuegik adierazten digu Fiare bost eremu geografikotan banatzen dela, horietako lau Italian eta bat estatu espainiarrean. Parte hartzea bultzatzeko Fiarek, eremu horietako bazkide eta boluntarioekin kontaktu sendoa mantentzen duela berresten du, haien iritzi eta partaidetzak pisu asko dutelako enpresan.

Laboral Kutxan, bere aldetik, erakunde politikoekiko menpekotasunik ez duen Kontseilu Errektore batek zuzentzen du Batzar Nagusia, non bazkideek maila goreneko erabakietan parte hartzen eta bozkatzeko dute, parlamentu bat balitz bezala, dio Gallastegiak. Urtean behin biltzen da Batzar Nagusia, kooperatibako kide guztiek dute bertan parte hartzeko eskubidea, demokratikoki erabakiak hartuz.

Beraz, erakunde kooperatiboak direnez eta partaidetza demokratikoarekin funtzionatzen dute, bazkide guztiek dute botoa emateko eskubidea, bazkide bat boto bat. Horregatik, gobernantza aldetik Laboral Kutxa eta Fiare antzekoak direla esan daiteke, baina eskala desberdinetan jolasten dute, demokratizazio jarduera hori modu desberdinean zabaltzen dutelako.

3.2.7. Gardentasuna

Gardentasunari dagokionez, irasuegik argi du, "gardentasuna Fiaren nahiko kontu erradikala da, dena aplikatzen da". Fiareren gobernantza erabateko gardentasunean oinarritzen da, hau da, hartzen diren erabaki guztiak bazkideen esku egon behar dira. Kanpora begira, Fiarek ematen dituen kreditu guztiak publikoak dira, hau da, Fiareren informazio guztia publikoa da, edozein bazkide eta bezerok ikusi dezake zenbat kreditu eman dituen Fiarek eta nori zuzenduta dauden. Beraz, bezero ez den beste edozeinek eskuratu dezake informazioa. Hala ere, Fiarek hartutako erabaki guztiak publikatzen dituzte urteko txostenean, eta hau edonoren eskura dago. Gainera, bezeroei hiruhileko txosten bat luzatzen zaie informazio sakonago batekin. Beraz, gardentasuna Fiareren prozesu osora zabaltzen dela dio irasuegi jaunak. Gardentasunaren alde komunikatiboa ere lantzen du Fiarek, proiektu bat laguntzen duenean, ezagutzera ematen du. Baina batez ere, Fiarerentzat garrantzitsua da bezeroek jakitea "zergatik eman zaion honi kreditua eta honi ez", banku etiko honen erabakiak argi izateko.

Laboral Kutxaren kasuan, gardentasunaz hitz egiten denean ez da Fiarek eskaintzen duen bezain gardentasun erradikala, beste modu baten ulertzen du. Laboral Kutxak informazio gardena ematen duela kontsideratzen du, bezeroei zerbitzu garbia emanaz, hau da, aholkularien zintzotasuna eta argitasuna azpimarratzen da bezeroei informazio-aukerak ematerako orduan. Beraz, Laboral Kutxa zenbait jardueretan gardena izango da, baina muga bateraino.

3.2.8. Kultura etikoa

Laboral Kutxa errentagarritasunean zentratzen da, hau da, bere helburu nagusia enpresak bizirautea da, gero bertan printzipio etikoak aplikatu ahal izateko. Bestalde, banku etikoak, bere negozioak bizirik irauteaz gain, bere diruarekin ingurumenean eta gizartean inpaktu positibo bat izateaz arduratzen da.

Gallasteguiaren iritziz, etika banku munduan barneratzea ez da aukera bat, baizik eta behar bat, bai banku kooperatiboetan zein ez kooperatiboetan. Legeari jarraitu behar zaio eta hau gero eta zorrotasun handiagoz jolasten ari da. Adibide bezala enpresen kutsadura jartzen du; legeak enpresen kutsadura jaitsi egin behar dela adierazten du. Ondorioz, Laboral Kutxak kutsatzeko muga hori errespetatu behar du, baina ez bere kabuz hartutako erabakiengatik, baizik eta legeak derrigortzen duelako. Gainera Gallastegui bigarren adibide bat eskaintzen digu, duela bi urte Laboral Kutxak zorizko jokoen inbertsioa ezeztatzea erabaki zen. Sozialki eztabaidagarria izan arren, jarduera hau legezkoa da, baina etikoki desegokia dela ulertzen zuen entitateak. Beraz, banku kooperatiba honek zorizko jokoen arloan gehiago ez inbertitzea erabaki zuen. Bazekien ez zela guztien gustukoa izango, baina oso zaila da bezero guztiei mesede egitea. Honi erreferentzia eginez, esan daiteke Laboral Kutxa gero eta gehiago hurbiltzen ari dela banku etikoaren ereduari, beste enpresak bezalaxe.

Laboral Kutxa banku etikoago batean bihurtzen ari bada ere, ezin da ahaztu banku kooperatiba honentzat enpresa dela garrantzitsuena, negozio gabe ez dago ezer, honela jarraitzen du Gallastegui. Enpresaren bizitzari ematen dio garrantzia, izan ere honek ez badu bizirauten, inoiz ezin izango zaizkio aplikatu etikaren baloreak. Honi lotuta, negozioaren eta etikaren artean oreka bat mantendu behar dela dio adituak; etika enpresan ezinbestekoa da, baina ezin da ahaztu negozioa merkatura sartzeko estrategia batzuk jarraitu behar dituela enpresak, bezeroen beharrak asetzea beharrezkoa baita. Honela bukatzen du, “zaila da merkatutik ihes egitea zure helburua merkaturan aurrera egitea eta negozioa garatzea bada, lehiatu beharra dago”.

Bestalde, finantza etikoen munduan, kultura etikoak askoz ere ikuspuntu zabalagoa du, izan ere jarduera guztian zehar aplikatzen da etika, hau da, erakundea bera sortzerako orduan balore etikoak nabarmenduko dira bai laneko atmosferan eta bai erakundearen izaera ezartzerakoan, azpimarratzen du Irasuegik. Behin erakunde etikoa eraiki ondoren, partaide etikoen bila hasiko dira. Prozesu horretan ere kriterio etikoek emango die garrantzia, aukeratzen duten enpresak helburu iraunkorrak izan beharko ditu eta noski proposatutako proiektua ekonomia sozial edota solidaria zuzenduta egon beharko da. Laburbilduz, Fiare erakunde etikoa izanda, berarekin lan egingo duen edozein enpresa ere etikoa izan beharko da eta xede etikoak izan beharko ditu.

3.2.9. “Nire diruarekin ez”

Jakin dakigunez, Fiare Banca Ética banku kooperatiboa izateaz gain, bere barnean GKEak eta hainbat elkarte biltzen ditu. Batez ere, GKEetatik datozen partaideek, beraien erakundetik at dauden jarduerak azpimarratzeari ematen diote garrantzi gehien. Baina hau Fiareren izaeraren parte bat da, beste parte handi batek dirua zein balorerekin erabiltzen den azaltzen du. Fiareren diskurtsoa gehiago zentratzen da zer egiten duen azaltzean zer egiten ez duen azaltzean baino. Izan ere, Fiarek ekonomia soziala sustatzen du, beraz, ez du guztiz beharrezkoa ikusten finantzatzen ez dituen jarduerak azpimarratzea, begi bistakoa delako. “Inplizitua izan beharko litzateke armagintzan inbertitzen ez dugula esatea; noski ezetz”, jarraitzen du Irasuegik, horregatik garrantzi gehiago ematen dio inbertituko dituen jarduerak azaltzeari.

Hala ere, bi diskurtsoen artean oreka bat bilatzen da, baina normalean garrantzi gehiago ematen dio bultzatzen dituen ekintzei. Beñat Irasuegik ekonomia sozialaren diskurtsoa sustatzen du. Fiarek, gaur egungo ekonomia sozial eta solidario eraldatzaileraren eredu oso argi duela dio Irasuegi jaunak, nahiz eta ekonomia sozialak ikuspegi zabala izan. Beraz, ulertzen da Fiarek ez duela ekonomia sozialetik at dauden jardueretan inbertituko.

Hasiera batean, Laboral Kutxak horrelako klausularik ez duela adierazten du Julio Gallastegui, baina honekin zerikusia duten hainbat jarduera bere gain hartzen dituela ere aipatzen du. Esaterako, Laboral Kutxak zorizko jokoetan inbertitzeari utzi dio. Ez da marko juridiko finko bat existitzen, baina pixkanaka etikoagoak diren ideiak gehitzen joango direla adierazi digu Gallastegui. Poliki-poliki hartuko dituzten erabakiak dira.

3.2.10. Etorkizuna

Bukatzeko, Laboral Kutxa Banku Etiko bat baino askoz gehiago izan behar dela azpimarratzen du Gallastegui, irizpide etikoak jarraitu beharko dituela, baina ez berak bakarrik, beste banku guztiek ere bai, legedia errespetatu beharko dutelako. Lege arautegian oinarri etikoak aplikatzen diren momentuan banku tradizional guztiak bihurtuko dira etikoagoak, lege hauek bete beharko dituztelako. Beraz, banka etikoa alternatiba bat bezala ikusi baino, elementu osagarri bezala bereganatzen du Laboral Kutxak. Ez du desio banku etiko baten bilakatzea, baizik eta beraiekin elkarlana egitea, Fiare-ekin dituen hitzarmenak bezala. Banku Etikoaren elementuak txertatuko ditu, zorizko jokoan inbertitzea alde batera utzi duen bezalaxe, baina ez ditu inoiz dituen printzipio kooperatiboak aldatuko.

“Ez dago Laboral Kutxaren baino banku sozialaren proiektu argiagorik”, jarraitzen du Laboral Kutxako zuzendari ohiak. Laboral Kutxa eta Fiareren arteko erlazioak bata beste lagundu eta osatzen du. Gallastegui miresmen handia die banku etikoei baina ez du uste Laboral Kutxak halako baten bilakatzeko beharra duenik. “Cuando uno empieza a autolimitarse, como es el caso de la banca ética, se encuentra con muchas dificultades”, argi dauka Julio Gallastegui. Laboral Kutxak printzipio etikoei jarraituz ekintza batzuk burutzen ditu eta zenbait arlotan oinarri etikoak bere osotasunean aplikatzen ditu; esaterako bezeroek aukera dute beraien aurrezkien zati bat Cáritas bezalako erakunde solidarioetara bideratzeko. Aldiz, Laboral Kutxak bere jarduera alderdi solidaria eta sozialera soilik bideratuko balu, enpresaren garapenean eragina izango luke. Fiare Banku Etikoak, bere borondate onarekin, proiektu solidarioak soilik finantzatzeko esfortzua egiten du, adibidez udalei maileguak zuzenduz. Laboral Kutxak, banku tradizionala izanik, ere udaletan inbertitzen du, baina baita beste hainbat arlotan ere. Beraz, banku tradizionalen lan eremua banku etikoena baino askoz handiagoa da, eta gainera banku etikoaren irizpideak bere baitan hartzen ditu, halaxe azaldu zuen Gallastegui jaunak elkarrizketan.

Banku Etikoen etorkizunari begira, baikor azaltzen zaigu Gallastegui jauna. Erregulazioaren etengabeko gehikuntzak, bankuei sarritan ahazten zaizkien alderdiak ezartzen lagunduko die. Eta nahiz eta bako etikoek zailtasunak izan merkatuan lehiatzeko, gure esku dago horiekin lankidetzan aritzea. Gallastegiren ustez, banku etikoen barne egiturak aldatuta bat izan ezean, ezin izango dira banku global bilakatu.

Beñat Irasuegik, aldiz, ez du aipatzen erakunde globala bilakatzerik nahi dutenik. Bere iritziz, aurreko krisian gertatu zen bezala, orain ere jendeak apustua egingo du banku etikoengatik, baina ez da bat bateko aldaketa izango. “Aspektu pertsonalean eta eguneroko bizitzan ikuspegi kontserbadoreagoa izango dute, beraz, nahiz eta kapitalismoarekin nazkatuta egon, emaitzak denborarekin ikusiko dira” jarraitzen du Irasuegik. Gainera, orain kredituak behar dituzten enpresa txikiek, presagatik banka tradizionalera joko dute. Hauek dirua merke emango diote, diru hori Europako bankutik datorrelako, baina bezeroei epe luzerako lotura ezarriko die bankuek, ahalik eta denbora gehien lotura mantentzeko asmoz. Datozen urtetan, askok finantza etikoen munduari begiratuko diote, baina pixkanaka. Bukatzeko, honela dio Irasuegik, “zerbait ikasi badut banka etikoaren munduan, pazientzia eduki behar dela da”.

Laburbilduz, sorrera eta izaera izango dira Laboral Kutxa eta Fiareren arteko berdintasun nabarmenenak. Bestalde, agerian dauden desberdintasunak gobernantzan, gardentasunean eta negozioan emango dira gehien bat.

3.2.1. Taula: Laboral Kutxa eta Fiareren arteko antzekotasun eta desberdintasun esanguratsuenak

	Egoera	LK	Fiare
Sorrera	Berdina	Krisiaren ondoren	Krisiaren ondoren
Kultura mota, izaera	Berdina	Kooperatiba	Kooperatiba
Parte hartzea, gobernantza	Desberdin	Itxiagoa	Zabalagoa
Gardentasuna	Desberdin	Zenbait jardueratan	Jarduera guztietan
Negozioa, orokorrean	Desberdin	Negozioa garrantzitsuena	Inpaktu positiboa garrantzitsuena

Iturria: Geuk egina (2020)

4.AZKEN ONDORIOAK ETA HAUSNARKETAK

Atal honetan, Marko Teorikoan bildutako informazioarekin eta Landa Azterketan jasotako emaitzekin azken ondorioak aterako ditugu. Horretarako, lehenik eta behin aldagaien eskema jarraituko dugu, aurretik egin ditugun alderaketak aipatuz, hala nola, sorrera eta gaur egun, alderaketa orokorra, kultura mota, finantzatutako enpresa motak, inbertitutako jarduera motak, parte hartzea, gardentasuna, kultura etikoa, nire diruarekin ez eta etorkizuna, besteak beste. Aldagaiez gain, azkeneko hausnarketa bat gehituko diogu, ondorio borobilago bat lortzeko asmoz.

Sorrera eta gaur egun

Esan bezala Arrasate inguruko lehen kooperatibak 1960ko hamarkadan hasi ziren sortzen, Banku Etikoaren aztarnak ere urte horien inguruan munduratu ziren, beraz, Laboral Kutxaren lehen pausuak eta Banka Etikoa garai berdinean eman ziren, biak gerraostean, bai gerra zibila eta bai Vietnameko gerraren ondoren. Orduan, krisiaren presentzia nabarmena zen, ekonomia baxua zegoen eta gizarteak banku alternatiboen beharra zuen, solidarioagoa. Horrela sortu ziren Laboral Kutxa eta Banka Etikoa, krisi ekonomiko gainditzeko asmoz. Egun bizitzen ari garen egoeraren ondorioz ekonomia oso baxu jausten ari da. Duela urte batzuk bizitako egoera antzeko baten aurrean gaude ekonomiari dagokionez eta garai batean krisitik ateratzeko alternatiba hauek erabili ziren bezala, aktualitatean gauden putzu honetatik ateratzeko ere baliagarriak izango direlakoan nago. Garai batean altxatu zituzten zutabeak sendotzeko momentu paregabea da, banku mota hauek indartu eta gizarteari laguntza handia ekarriko diela demostratu behar dute.

Alderaketa orokorra

Atal honi dagokionez, hasiera batean, Interneteko informazioarekin Laboral Kutxak eta Banku Etikoek, kasu honetan Fiarek, antzekotasun asko dutela esatera ausartu gara. Eta halaxe da, hainbat aspektutan ikuspuntu berdinak dituzte, baina elkarriketak egin ondoren gure iritzia zertxobait aldatu da. Entitate bakoitzaren barneko nortasuna hobeto ezagutu eta ohartu gara, bi banku hauen printzipioak ez direla berdinak. Caja Laboralen sorrera Fiareren sorrerarekin bat dator, baina eboluzionatzen joan diren heinean bide desberdinak hartu dituzte eta azaldu bezala, orain printzipio desberdinak dituztela esango dugu.

Kultura mota

Laboral Kutxa eta Fiarek izaera juridikoa konpartitzen dute, biak kooperatibak baitira,, beraz, entitate barruan duten antolaketa berdina dela kontsideratzen da. Kooperatiba hauen hainbat helburu bat datozen arren, bakoitzak ikuspegi kooperatiboa bere esparrura eraman duela esan dezakegu. Hau da, hasiera batean kooperatiba batek izan ohi dituen jomugetatik abiatuta, gaur egun Laboral Kutxak eta Fiarek dituzten zenbait helburu erabat desberdinak dira. Laboral Kutxa bere negozioa helburu kooperatiboetatik disoziatzen saiatu den bitartean, Fiarek bere jarduera ekonomia

sozialera zuzendu du. Orduan, hasiera batean bi banku hauek izaera berdina izan arren ez dute modu berean ulertzen kooperatiben jarduera.

Finantzatutako enpresa motak

Proiektuak finantzatzeko erabiltzen diren irizpideei buruz hitz egiten dugunean bai Laboral Kutxa eta bai Fiare ados datoz, biak baitiote ez dela lan erraza erabaki horiek hartzea, proiektu bakoitzak bere balorazio etikoa behar baitu. Beraz, hasierako diskurtsoan kointziditzen dute, baina sakonago aztertzen dugunean bistakoa da Fiare askoz ere finkatuagoak dituela kriterio horiek. Finantzatuko den enpresak marko juridikoan azaltzen diren baldintzak bete beharko ditu kreditua eskuratzeko. Gainera, proiektuari azterketa etiko bat egiten zaio, proiektu jasangarria dela berresteko. Laboral Kutxak, bestalde, ohiko arriskuez gain beste irizpide batzuk ere kontuan hartzen ditu finantzatuko duen proiektu bat aukeratzekoan, ingurugirokoak, esaterako. Izan ere, honen iritziz, etorkizunean ingurumeneko irizpideek geroz eta indar handiagoa izango dute.

Inbertitutako Jarduera motak, espekulazioak

Fiarek argi dauka, ez du inondik ere espekulazioa bezalako jardueretan inbertitzen. Bertan inbertituz gero, ekonomia erreala baztertzen duelako. Eta entitateak bildutako aurrezkiak benetan diru horren beharra duen pertsoneri zuzendu ordez, diru gehiago eskuratzeko aukera ematen duten jardueretara zuzentzen delako. Laboral Kutxak, aldiz, ez du argi uzten gai honi buruz dagokiona. Haren web orrian espekulaziotan ez duela inbertitzen adierazten du, baina Julio Gallastegirekin elkarrizketa izan ondoren beste ikuspegi bat luzatu digu. Laboral Kutxak, lehenik eta behin bezeroei kredituak eskaintzen diela dio, eta ondoren, soberan dituen aurrezkiekin eta kooperatiben beharrak baztertu gabe, espekulazioen esparru hori ukitzen duela adierazi du. Izan ere, enpresak bizirik irauteko ezinbesteko jarduera dela dio.

Parte Hartzea

Parte hartzeari dagokionez, bazkide guztiek dute botoa emateko eskubidea, beraz, juridikoki berdinak direla esan dugu, Laboral Kutxa eta Fiare kooperatibak dira, baina enpresa barruko funtzionamenduari dagokionez desberdintasunak daude. Biak formalki demokratikoak dira gobernantzan, baina Fiarek baditu erabakitze prozesua deszentralizatzen dituen mekanismoak, ahalik bazkide eta langile gehienek parte hartzeko erabaki horietan. Bazkide eta boluntarioekin etengabeko kontaktua mantentzen du, hauen iritzia bere gain hartuz. Laboral Kutxa, bere aldetik ere demokratikoa da, baina neurri desberdin baten, bazkideez osatutako batzar batek kontrolatzen du, baina botere hori ez dago zabaldua. Horregatik, gobernantza aldetik Laboral Kutxa eta Fiare antzekoak direla esan daiteke, baina eskala desberdinetan jolasten dute, demokratizazio jarduera hori modu desberdinean zabalitzen dutelako.

Gardentasuna

Fiare erabat gardena da, eta gainera gardentasuna bere entitateko arlo guztietan aplikatzen du. Hau da, hartzen diren erabaki guztiak konpartitu egiten dira, emandako kreditu guztiak publikatu egiten diren bezala, baita Fiareren informazio guztia ere. Bezero zein bazkideek entitatean gertatzen denaren berri izango dute. Laboral Kutxaren gardentasuna ez dago Fiareren gardentasunaren maila berdinean. Laboral Kutxa gardena izango da baina muga bateraino, izan ere, harentzat gardentasuna bezeroei zerbitzu argia eta garbia ematean datza, informazioa zintzotasun osoz eskainiz.

Kultura etikoa

Legeak geroz eta zorrotzagoak direnez, Laboral Kutxa banku etikoago batean bihurtzen ari dela kontsideratzen da. Etika banka-munduan barneratzea ez da aukera bat, baizik eta behar bat. Baina ezin da ahaztu banku kooperatiba honentzat enpresa dela garrantzitsuena, errentagarritasunean zentratzen da, ondoren bertan printzipio etikoak aplikatu ahal izateko. Bestalde, Fiarek, bere negozioak bizirik irauteaz gain, bere diruarekin ingurumenean eta gizartean inpaktu positibo bat izateaz arduratzen da, kultura etikoak askoz ere jomuga zabalagoa du. Nolabait jendearen ikuspuntua aldatu nahi du, kontzientek izatea beraien diruaren erabilerarekin. Gainera, jardueraz gain, bazkide-enpresek hainbat berdintasun izatea eskatuko dute, hala nola, kooperatiba izatea eta genero berdintasuna eta soldata politika egokiak izatea.

“Nire diruarekin ez”

Fiarek garrantzi gehiago ematen dio diruarekin zer egiten duen azaltzeari zer egiten ez duen azaltzeari baino. Ekonomia soziala bultzatzen duenez, honi zuzendutako ekintzak azpimarratzen ditu Fiarek, bere iritziz ez du merezi zer jarduera ez dituzten finantzatzen azaltzea, aintzat hartzen da ekonomia sozialetik at dauden jarduerak ez dituztela finantzatuko. Fiarek ekonomia sozial eta solidarioari keinu bat egiten dion bitartean, Laboral Kutxak ez du horrelako azalpenik ematen. Hasiera batean ez du “Nire diruarekin ez” klausularik, baina antzeko gaietan parte hartzen du bere diskurtsoa zabaltzerako orduan. Esan bezala, ez da marko juridiko bat existitzen baina ekonomia sozialeko hainbat jarduerari begira apustu egiten du.

Etorkizuna

Etorkizunari begira, Laboral Kutxa bere aldetik, geroz eta banku etikoago batean bilakatuko delakoan dago, legediari jarraitu beharrean dagoelako. Laboral Kutxaren helburua banku etiko batean bilakatzea ez izan arren, harengandik hainbat elementu eskuratzea kontsideratzen du. Bestalde, banku Etikoak ez dira atzean geldituko, nahiz eta merkatuan lehiatzeko zailtasunak izan positibo mantentzen dira. Egungo egoerari begira, gizartearen kontzientzia aldaketa espero du, baina jakin badaki ez dela lan erreza izango. Hala ere, epe ertainean finantza etikoak asko zabalduko direla dio Irasuegik, gaur egun pisu horri heltzeko tresnak prest dituztelako. Beraz, bi bankuek aurrera jarraitzeko eta etorkizunean beraien bertsio hobeko bat lortzeko asmoa dute, baina beti ere kontuan izanda bakoitzak bere bidea jarraituko duela. Esan bezala eta hasierako galderari erantzunez, Laboral Kutxaren helburua ez da Banku Etiko batean

bilakatzea, beraz, ezin da esan Banku Etiko batean bilakatzea komeni zaion edo ez, ez duelako eremu horretan jolasten.

AZKEN HAUSNARKETA

Behin atal honetara iritsita, bai marko teorikoko informazioarekin bai elkarrizketei esker eskuratutako ideiekin ondorio orokorrak batzuk atera dira. Horrez gain, oinarri batzuei buruz hausnarketa bat egingo dugu.

Lehenik eta behin “Langileak lehenengo” esaldiari egingo diogu erreferentzia. Laboral Kutxa eta Banku Etikoen sorreraz gain, beste hainbat jarrera edota ikuspegi aztertuko ditugu, langileak aurrezartzea, esaterako. Euskadiko Kutxaren sorreran aipatu den bezala, Jose Maria Arizmendiarrietaren balore nagusietako bat langileen aurrezartzea zen, eta hau islatu zuen garai horretan sortu ziren kooperatibetan. Langileak ziren garrantzitsuenak eta horregatik irabaziak baino lehenago hauen ongizatea jartzen zuen. Banku Etikoak ere ideia berdinen oinarritan sortu ziren, irabaziak izatea beharrezkoa zen arren, ez baitzuten helburu nagusia bezala. Beraz, bi pentsaera hauek batzen baditugu, bi alderdiak bat datozela esan dezakegu. Baina ez da gai erraza, Euskadiko Kutxa Ipar Kutxarekin batu eta Laboral Kutxa izatera pasa zenean eta ondorengo urteetan bere nortasuna zertxobait aldatu dela somatu da, edo behintzat hori adierazten dute Ordaindu Elkarteko kideek. Hasiera batean Euskadiko Kutxaren balore esanguratsuenetako bat badirudi galdu egin dela. Laboral Kutxak Gaztenpresa bidez lanpostu berriak sortzen ditu, baina lana sortu baino lehenagotik dauden lanpostuak mantentzeko apustua egitea izango litzateke zuzenena.

Lemaren gaia ere azpimarratzekoa da, bai Laboral Kutxak bai Banku Etikoek banka egiteko beste modu bat aurkezten dutelako, banka alternatiboa deitzen diotena. Banku tradizionalen mundutik urrundu nahi dute, 2008ko krisiaren ondoren bankuek prestigioa galdu zuten, gizarteak ez zuen konfiantzarik haiengan, eta horregatik saiatzen dira desmarkatzen. Aspaldi, ez zegoen Banka Etiko edota beste edozein banku alternatiboen beharrik, ordurarte ekonomiak normaltasunez funtzionatzen zuen. Baina krisiaz geroztik Espainiako banku askok porrota jasan zuten, horietako bat Bankia. Espainiak Europari mailegu bat eskatu zion Bankia zulotik ateratzeko (Jiménez, 2019), baina Europak utzitako diru hori bueltatzeko zerbitzu publikoak murriztu ziren Espainian, herritarrei zerbitzu sozial asko kenduz. Beraz, zeharka, Espainiako biztanle guztien diruarekin ordaindu zen Bankiaren erreskatea. Noski, hau ez zen inoren gustukoa izan eta horregatik hasi zen bankuenganako gorrotoa. Horregatik, adierazten du Laboral Kutxak banku tradizionala izan arren, honengandik urrun gelditzen dela. Banku Tradizional guztiak saiatzen dira desmarkatzen, bakoitzak bere estrategiak erabiliz. Esan bezala, Laboral Kutxak Banka Etikoarekin antzekotasunak dituela adierazten du horretarako, beste adibide bat, esaterako, “Banco no banco” ING-ren azken proposamena da (ING España, 2019).

Azkenik, espekulazioei buruz hausnartuko dugu. Espekulazioen inguruan gogoeta sakon bat egiteko beharra piztu zait. Bankuek maileguak eskaini beharko lituzkete soilik edo inbertsio espekulatiboetan inbertitzeko aukera ere izan beharko lukete? Egunero egiten ez diren galdera horietakoa da, baina hausnarketara bultzatzen du, (Peydro, 2015).

Spainia 2008-2014 bitarteko krisi ekonomikoa geroztik banka egiteko modua aldatu egin da, esan daiteke espekulazioan inbertitzeko aktibo finantzarioak mugatu egin direla. Izan ere, zenbat eta diru gehiago inbertitu espekulazioetan, bankuek orduan eta diru gutxiago izango dute ekonomia errealean inbertitzeko, hau da, benetan diru horren beharra duten bezeroei mailegatzeko.

“Nada es Gratis” web orri honen arabera bi arrazoi nagusi daude bankuen finantza aktiboen erosketak mugatzera bultzatzen dutenak. Bata finantza aktiboak erostean bankuak har ditzaken arrisku neurrigabea nabarmentzen da. Bestalde, bankuak bigarren merkatuko jarduera honi garrantzi handiegia ematean datza, bezeroak alde batera utziz.

Gainera, ikusi daiteke espekulazioetan inbertitzen duten bankuek, krisi garaian, inoiz baino inbertsio gehiago eta handiagoak egin zituztela espekulazioetan, aktiboak merke erosi baitzituzten, jakin zekitelako etorkizunean emaitza altuak lortuko zituztela. Arez gehiago, krisi egoera hau zen bezero partikularrek eta bai enpresek maileguen behar handiena zuten garaia, eta bankuek beraien diruaren zati handiena bigarren eskuko merkatuetan inbertitu zuten, geroz eta diru gutxiago izanez bezeroei eskaintzeko.

Beste modu batera esanda, kaudimen handiagoa zuten bankuek sektore errealari zuzendutako kredituak murriztu zituen finantza merkatuetan gehiago inbertitzeko. Horrez gain, banku hauek utzi zuten mailegu eskaintzaren defizit hori ezin izan zen konpentsatu beste banku batzuen maileguen bitartez.

Historiako gertaera hau aztertuta, gaur egun bankuek beraien gestioa moldatu beharko lukete. Bizitzen ari garen egoera ikusita, konfinamendua dela eta enpresak itxi eta ekonomia jarduera jaitsi egin dela, zulo honetatik irtetzeko jende askok maileguen beharra izango du, eta espero da bankuak behar hauek asetzeko erabat prestatuta egotea. Hau da, inbertsio espekulatuak bigarren maila baterako utzi eta ekonomia errealean zentratzea.

5. BIBLIOGRAFIA

20M EP. (2020). *20 minutos*. <https://www.20minutos.es/noticia/4157329/0/laboral-kutxa-cerro-2019-con-un-beneficio-consolidado-de-137-7-millones-un-3-02-mas/>. 2020ko maiatzean begiratua.

Arizmendiarieta 100urte. (2015). *YouTube*. <https://www.youtube.com/watch?v=Mwdu6SjhLeU>. 2020ko apirilean begiratua.

Auñamendi Eusko Entziklopedia. (d.g.). *AUÑAMENDI EUSKO EZNTIKLOPEDIA*. <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/ularco/ar-137556/>. 2020ko maiatzean begiratua.

Banca Ética. (2016). *Banca Ética*. <http://bancaetica.cat/es/entidades-finanzas-eticas>. 2020ko apirilean begiratua.

Bargalló, G. (2018). *El Bien Social*. <https://elbiensocial.org/entidades-banca-etica-espana/>. 2020ko apirilean begiratua.

Brands of the World. (2013). *Brands of the World*. <https://www.brandsoftheworld.com/logo/ipar-kutxa>. 2020ko apirilean begiratua.

Caja Rural Vasca. (d.g.). *LinkFang*. https://es.linkfang.org/wiki/Caja_Rural_Vasca. 2020ko apirilean eskuratua.

Calleja, P. (2020). *El País*. https://elpais.com/economia/2020/03/02/actualidad/1583160869_703324.html. 2020ko apirilean begiratua.

Cavallito, M., Isonio, E., Meggiolaro, M., Codina, M., Ibañez, J., Baranes, A., (2018). *LAS FINANZAS ÉTICAS Y SOSTENIBLES EN EUROPA*. <https://finanzaseticas.net/wp-content/uploads/2018/12/1r-informe-cs.pdf>. 2020ko apirilean begiratua.

Colonya Caixa Pollença. (d.g.A). *Colonya Caixa Pollença*. <https://colonya.com/ca/nosaltres/origen-i-expansio/>. 2020ko apirilean begiratua.

Colonya Caixa Pollença. (d.g.B). *Colonya Caixa Pollença*. <https://colonya.com/es/nosotros/guillem-cifre-de-colonya/>. 2020ko apirilean begiratua.

Coop57. (d.g.). *Coop57*. <https://www.coop57.coop/es/informacion/qui%C3%A9nes-somos>. 2020ko apirilean begiratua.

Copreci. (d.g.). *Copreci*. <https://www.copreci.com/es/50-aniversario>. 2020ko maiatzean begiratua.

- Cortina, A. (2018). *filosofia&co*. <https://www.filco.es/que-dicen-expertos-etica/>. 2020ko martxoan begiratua.
- Dinerétic. (d.g.). *dinerétic*. <https://www.dineretic.net/es/conoce-las-finanzas-eticas/que-son-las-finanzas-eticas/>. 2020ko martxoan begiratua.
- DobleImpacto. (2018). *YouTube*. <https://www.youtube.com/watch?v=iRFqGFfnR4&t=76s>. 2020ko apirilean begiratua.
- economiasolidaria. (d.g.). *El portal de la economía solidaria*. https://www.economiasolidaria.org/finanzas_eticas. 2020ko martxoan begiratua.
- efecom. (2018). *eleconomista.es*. <https://www.eleconomista.es/empresas-finanzas/noticias/9088018/04/18/Laboral-Kutxa-logro-un-beneficio-de-1274-millones-en-2017.html>. 2020ko apirilean begiratua.
- EGM. (d.g.). *euskadi.eus*. https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/mutilacion_genital_femenina/eu_def/adjuntos/1-3-oinarri-etiko-juridikoa.pdf. 2020ko martxoan begiratua.
- eitb. (2013). *eitb.eus*. <https://www.eitb.eus/es/noticias/economia/detalle/1325840/laboral-kutxa-resultado-fusion-caja-laboral-ipar-kutxa/>. 2020ko apirilean begiratua.
- elEconomista. (2012). *elEconomista*. <https://www.eleconomista.es/economia/noticias/4085159/06/12/Las-asambleas-de-Caja-Laboral-e-lpar-Kutxa-aprueban-su-fusion.html>. 2020ko apirilean begiratua.
- Estornés, B. (d.g.). *Auñamendi Eusko Ikaskuntza*. <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/es/foto/mu-52988/>. 2020ko apirilean begiratua.
- FETS. (d.g.). *Banca Ética*. <http://bancaetica.cat/es/banca-etica-finanzas-eticas>. 2020ko apirilean begiratua.
